

Turismo marka berria dauka Oñatik

Markarekin batera, Oñatiko turismoaren webgunea eta bestelako euskarri turistikoak (seinaleak, panelak, kartelak, esku-orriak...) ere berritu dira.



100KW-ko INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA



ONEKO Oñatiko Energia Komunitateak bere lehen proiektua jarriko du martxan

KARGA-LEKU ELEKTRIKOAK



Erabilgarri daude lur azpiko aparkalekuetan Udalak ipini dituen karga-puntuak

ESKUBALOI SAILA OMENDUA



Gipuzkoako federazioak Alosia Mendiko eskubaloi saila omendu du 50. urteurrenean

Oñatiko turismo marka berri du Udalak

> Oteizaren hutsunearen kontzeptuan inspiratuta, plano karratu baten gainean dagoen 'O' hizkia izango da Oñatiko turismoaren sinbolo berria.

> Markarekin batera, Oñatiko turismoaren web ataria eta bestelako euskarri turistikoak (seinaleak, panelak, kartelak, esku-orriak...) ere berri dira.



Turismo marka berria izango du Oñatik aurrerantzean. Ondoko irudian ikus daitekeen moduan, lauki geometriko baten gainean dagoen Oñatiren 'O' hizkia dago irudi berriaren oinarrian, eta Jorge Oteizaren hutsaren kontzeptuan inspiratuta dago, logo berria sortu duen Oñatiko Bigga estudioak azaldu duenez. "Espazio horrek begirada introspektibo bat sinbolizatzen du eta Oñatiren esentzia sakona irudikatzen du, bere kulturarekin eta historiarekin konektatu nahi duten begirada ezberdinen topagune izan nahi duena".

Aldaketa estetiko hutsera mugatu barik, *branding* estrategia oso baten baitan egindako lanketaren emaitza izan dela azaldu du Xabier Igartuak, udaleko turismo batzordeko buruak. "Oñatiren nortasuna, balioak, posizionamendua eta eskaintza turistikoa modu koherentean definitu eta komunikatzea da helburua, gure balio bereizgarriak –ondarea, natura, kultura, komunitatea eta euskara– modu argiagoan posizionatuz eta identitate turistiko sendo eta bereizgarria duen helmuga gisa aurkeztuz".

Logo edo irudi berria moldagarria da eta lau kolore erabiliko dira herriak eskaintzen dituen lau turismo ardatzak irudikatzeko: kultura (gorria), natura (berdea), ondarea (marroia) eta gastronomia (horia). Markarekin batera, lelo turistiko berria ere hautatu da: *Ikuspegi ezberdinen topagunea*.

WEBGUNEA ETA BESTELAKO EUSKARRIAK

Marka turistikoa berritzearekin batera, Oñatiko turismoko webgunea ere –www.turismoa.oñati.eus– eguneratu eta modernizatu du Udalak, batez ere mugikorretan pentsatuz, hori baita, gaur egun, bisitari gehientsuenek darabilten sarbidea. Turismo arloan Oñatik dituen baliabideak eta eskaintza azaltzeaz gain, bisita gidatuen erreserbak online egiteko aukera ematen du. Turismo bulegoaren eskaintzaz gain, Mankomunitatea, Txokolateixia, Gomiztegi edota Murgialdaikoa ere aurkituko dugu bertan. Baita autobusen ordutegia eta kultur ekitaldien agenda ere, besteak beste. Webgune berria Nagore Goñiren argazkiz eta Dragoi Produkzioak-ek grabatutako ikus-entzunezko ederrez hornituta dago, urtaroen arabera aldatuz joango direnak. Horrez gain, herrian zehar dauden gainerako euskarri turistikoak ere –seinaleak, panelak, erloju-termometroak, kartelak, esku-orriak...– ere berri egin ditu Udalak, irudi berrira egokituta. Berritze lan hauek guztiak Europako *Next Generation* laguntzen bidez finantzatu dira.



Xabier Igartua eta Ikerne Altube, udaleko turismo batzordeko arduradun politikoa eta teknikoa. Goian, turismo marka berria.



Lau ardatz, lau kolore

Bisitarien pertzepzio eta konexio emozionalean eragiteko asmoz, Oñatiko turismoaren logo edo irudi berria kolore ezberdinetan erabiliko da, bai webgunean eta baita esku-orri eta karteletan, herriak eskaintzen dituen lau ardatzak irudikatzeko. Hala, kolore **gorriak** kultura irudikatuko du, herriko kultur eskaintza aberatsa eta euskararekiko grina nabarmenduz; **berdeak** natura irudikatuko du, gure paisaien edertasuna eta jasangarritasunarekiko konpromisoa; **marroia** ondarearekin lotuta egongo da, mendeetan zehar gure nortasuna moldatu duten tradizioak irudikatuz; eta kolore **horia** gastronomiarekin, tokiko zaporeen esentziarekin eta Oñatik 0 km.-ko produktuekin daukan konpromisoarekin lotuta egongo da.



Ezkerrean, herriko sarreran ikus daitekeen panel berrietako bat. Behean, Oñatiko turismo webgunea: www.turismoa.oñati.eus

Seinaletika berria


Irudi edo marka berria sortzearekin batera, herrian zehar dauden bestelako euskarri turistikoak ere –kaleko seinaleak, herriko sarreretan dauden panel handiak, erloju-termometroak eta bestelako kartel eta esku-orriak, sare sozialetako bannerrak– berritu egin ditu Udalak, irudi berrira egokituz.



ONEKOk, Oñatiko Energia Komunitateak, bere lehen proiektua jarriko du martxan

100 kW-ko instalazio fotovoltaikoa jarriko du Eltziako teيلاتuan. Nahi duten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute proiektuan.

Uztailaren 8an aurkeztuko du proiektua kultur etxean, herritar guztiei irekia



Goiko irudietan adierazten den moduan, Eltziako taberna gaineko teيلاتuan eta aldamenekoan instalatuko dituzte eguzki plakak. 100 kilowatioko potentziadun instalazioa izango da, hau da, 180 panel inguru jarriko dira eta 360m² inguruko azalera hartuko du.

Laster beteko da urtebete ONEKO, Oñatiko Energia-Komunitatea, eratu zela eta, dagoeneko, lehen proiektua jarriko du abian. 100 kW-ko potentziadun instalazio fotovoltaikoa –180 bat eguzki panel– instalatuko ditu Udalak lagatuko bi teيلاتuan, Eltziako tabernaren gainaldean. Proiektu honetan interesa duen edozein herritarrek parte hartu ahal izango du eta etekin ekonomikoari dagokionez, argindar fakturaren herena ordaintzeko bestekoa izango da. Dena den, ONEKO kooperatibako kideek uztailearen 8an azalduko dituzte proiektuari buruzko xehetasun guztiak, kultur etxeko zine aretoan, 19:00etan. Aurkezpen saio irekia izango da, interesa izan dezaketen herritar guztiei irekia. ONEKOk presidente den Raul Garciak egin digu proiektuaren aurrerapena.

Hasteko, gogora dezagun zer den ONEKO.

Oñatiko Energia-Komunitatea da, zenbait herritarren artean sortu duguna –une honetan 48 bazkide gara–, Udalaren laguntzarekin. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat gara, eredu energetiko iraunkorrako, bidezkoago eta demokratikoago baterako trantsizioarekin konprometituta dagoena, eta norabide horretan eragin nahi duena, energia berriztagarria ekoitziz, energia kontsumoa murriztu eta optimizatzeko neurriak hartuz, eta herritarren kontzientzia osoa sustatuz. Iazko irailaren 3an eratu genuen ofizialki kooperatiba, eta urtebeteko lanketaren ostean gure lehen proiektua mar txan jartzera goaz.

Zertan datza proiektua, eta zein fasetan dago?

Energia berriztagarria sortzeko azpiegitura fotovoltaiko bat instalatuko dugu Eltzia tabernaren gainaldeko bi teilatuetan –Udal jabetzakoak dira biak–. Denera, 180 bat eguzki-panel izango dira, eta 360 m² inguruko azalera hartuko du.

Zalantzak izan ditugu eguzki panelekin batera energia biltegitratzeko batera ipini ala ez, baina gure aurreneko proiektua dela kontuan izanik eta dirulaguntzak eskatzeko epe batzuk bete behar genituela kontuan hartuz, oraingoz batera barik egingo dugu instalazioa, eta aurrerago egongo da batera jartzeko aukera, komenigarria ikusten bada.

Erabakita dago, jada, zein enpresak egingo digun instalazioa, eta hurrengo urratsa izango da proiektua aurkeztea herri-



"Proiektuan parte hartzen duten herritarrek etekin ekonomiko bat jasoko dute, baina hori bezain garrantzitsua da kontziente izatea ingurumenaren alde ari garela energia berriztagarria sortuz"

tarren aurrean. Uztailaren 8an (kultur etxean, 19:00) azalduko ditugu proiektuaren inguruko xehetasun guztiak, eta hortik aurrera proiektuan parte hartu nahi duten herritarrek izena emateko aukera izango dute. Beraz, animatu egin nahi ditut herritarrek aurkezpen saiora joan daitezten.

Guk ilusio handia daukagu; urtebete honetan poliki hasi gara, urrats sendoak emanez, baina dagoeneko prest dago gure lehen proiektua, badakigu gauzak nola egiten diren, eta mugarrimoduko bat izango da ONEKOn ibilbidean. Oso pozik gaude.

Zer egingo duzue Eltziako plaka fotovoltaikoen bidez sortuko den energiarekin?

Argindar sare nagusira joango da. Argindar banatzaileek neuritzen dute zenbat energia sortu den instalazio horretan eta, horren arabera, proiektuan parte hartzen duten bazkideen etxeko argindar kontsumotik deskontatu egiten da proportzio berean.

Nork eta zenbat herritarrek parte hartu ahal izango dute proiektu honetan?

Hasiera batean edozein herritarrek parte hartu ahal izango du. Kontuan hartu behar da, noski, proiektu honek bere mugak dauzkala; hau da, 100 kW-ko instalazio bat izango da, eta gure asmoa da 0,5 kW-ko paketetan banatzea. Beraz, asko jota 200 lagunek parte hartu ahal izango dute, eta lehentasuna izango dute dagoeneko ONEKOn bazkide direnak –une honetan 48 kide gara–. Dena den, zenbat eta jende gehiago batu, hobe; agian batzuk ezingo dute lehen proiektu honetan parte hartu, baina beste proiektu batzuk ere etorriko dira laster eta, esan bezala, zenbat eta kide gehiago izan, askoz hobe, proiektu gehiago abian jartzeko aukera izango dugu.

Zenbateko inbertsioa egin beharko da proiektu honetan parte hartzeko?

→



**Une honetan
48 bazkide ditu
ONEKok**

**Uztailaren zehar
eguzki plaken
proiektuan
parte hartu
nahi duten
herritarrek izena
emateko epea
zabalduko dugu**


ETXiAN
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3
Telf.: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net


carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Aurrena ONEKOk bazkide egin behar da eta, horretarako, 50 euroko sarrera kuota ordaindu behar da. Bestalde, proiektu konkretu honi dagokionez, uztailaren 8ko bileran emango ditugu kopuru eta datu guztiak zehatz-mehatz; 0,50 kW-ko pakete bakoitzeko hasierako ekarpen bat ipini beharko da eta, horrez gain, urteko kuota bat ere ipiniko dugu instalazioaren mantenu ea amortizaziorako.

Zenbat denbora aurreikus-ten duzue inbertitutako dirua amortizatu ahal izateko?

Esan moduan, lortzen ditugun dirulaguntzen arabera denbora gehiago edo gutxiago beharko da, baina, gutxi gora behera, argindar fakturaren heren bat aurrizteko emango du eta, horrela, 5 urtetan amortizatzeke moduan egongo gara.

Dena den, esan nahi nuke, ekonomikoa ez dela proiektu honek daukan abantaila edo etekin bakarra. Azken batean, 100 kW-ko instalazio bat da, eta horrek eman dezakeen etekin ekonomikoa ez da oso handia. Baina guretzat hori bezain garrantzitsua da kontziente izatea munduan egun dugun arazorik larrienetako baten aurrean gaudela eta gure eskuetan dagoena egin dezakegula ingurumenaren eta jasagarritasunaren alde, besteak beste energia garbia eta berriztagarria sortuz. Azken batean etorkizun iraunkorrako, bidezkoago eta demokratikoago baterako trantsizioaren alde eragiteko asmoz sortutako elkarteak da ONEKO eta printzipio horiekin bat egiten duten herritar guztiak animatu nahi ditugu bat egitera.



Lankidetzaz hitzarmena sinatu dute UDALAK eta ONEKOK

Udalaren laguntzarekin hasi zen gorpuzten ONEKO elkarteak. 2023/24ko Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarrek aukeratutako proposamen edo eskarietako bat izan zen Udalak erraztea energia-komunitate bat sortzeko prozesua. Hala, 2024ko irailean antolatutako hitzaldi sorta baten ostean, herritar talde batek energia-komunitate bat sortzeko ardura hartu zuen bere gain, Aise kooperatiba eta Goiener elkartearen laguntza eta aholkuarekin. Urtebeteko lankidetzaren ostean, 2025eko irailaren 3an eratu zen ofizialki ONEKO, Oñatiko Energia-Komunitatea. Eta orain hiru urterako lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Udalak eta ONEKOK. Akordio horren arabera, aurtengo 10.000 euroko dirulaguntza emango dio Udalak, energia eredu iraunkorrako, bidezkoago eta demokratikoago baterako trantsizioaren alde eragiteko antolatutako dituen jarduerak eta ekimenak (kontsumoaren murrizketa, energia berriztagarrien sorrera, sentsibilizazioa...) aurrera ateratzen laguntzeko.

Bestelako proiektuak ere baimen dituzue mahai gainean. Ezer aurreraterik?

Energia fotovoltaikoari dagokionez, aurreneko proiektu hau Udalak lagako dugun bi teiltatutan instalatuko dugu, baina ez dugu ahaztu behar Oñatin teiltatu ia gehienak hutsik daudela oraindik –alde zaharreko teiltatuetan ezin da eguzki panelik ipini, babestuta daudelako–; beraz, gure asmoen artean badago eraikin pribatue-

kin elkarlanean aritzea; hau da, komunitate bateko bizilagunak ados jartzen badira teiltatutan eguzki plakak jartzeko, gureganajo ahal izango dute eta ONEKO arduratuko da kudeaketa lan guztia egiteaz.

Bestalde, mini-zentral eolikoak jartzeko aukera ere aztertu nahi dugu, eta mugikortasunaren arloa ere jorratu nahi genuke. Oñatin milaka auto ibiltzen dira egunero-egunero, lanerako joan-etorrian, gehienak bidaiari bakarrarekin. Hori ez da inola ere jasagarria, eta hor ere badugu zeregina. Negu partean erretzen dugun gas kopuru izugarria murrizteko aukerak ere aztertu nahi ditugu, eta sentsibilizazio mailan ere eragin nahi dugu, ikastetxeetan hitzaldiak emanez eta herritarrek, oro har, kontzientziatzen saiatuz.

Beste energia-komunitate batzuekin saretzen hasi gara, elkarlanean aritu eta sinergiak optimizatzeko, eta gure helburuen artean ere badago –oraindik zehaztu gabe dago nola egingo dugun– energetikoki egoera zaurgarrian dauden familiei laguntzea.

Zergatik izan energia-komunitate bateko kide?

Munduak duen arazo potoloenetako baten aurrean gaudelako. Badirudi gobernu eta erakunde publikoak hasi direla gaia serio hartzen, nahiz eta urte asko galdu ditugun, baina denok ipini behar dugu gure aletxoak. Ildo horretan, energia-komunitateak tresna bikainak dira herritarrek kontzientziatzeko eta martxan jartzeko.

Informazio gehiago: www.oneko.eus.



ARKITEKTURA

Baserriak * Teiltatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

JUANJE MARGOAK
627 818 247





Camilo Umaña, New Yorkeko Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluko sarreran dagoen 'Gernika' kuadroaren aurrean

Camilo Umaña, Oñatiko Lege Soziologia Institutuko zuzendaria, Narkotikoen Nazioarteko Fiskalizazio Batzordeko kide izendatu dute

→ Drogen kontrolari buruzko nazioarteko tratatuak betetzen direla zaintzeaz eta eguneratzeaz arduratzen den batzordea da, eta mundu mailako hamahiru adituk osatzen dute.

→ Kolonbian politika kriminaleko eta justizia trantsizionaleko ministroordea izan zen Umaña. 1998an Bogotan erail zuten Eduardo Umaña giza eskubideen defendatzailearen semea da.

Camilo Eduardo Umaña Hernández, Oñatiko Nazioarteko Lege-Sociologia Erakundeko zuzendari akademikoa, Nazio Batuen organo independentea den INCN (International Narcotics Control Board) batzordeko kide izendatu dute hurrengo bost urteetarako. Drogen kontrolari buruzko nazioarteko tratatuak betetzen direla zaintzeaz arduratzen den organoa da. Izendapenaz eta Oñatiko Lege-Sociologia Institutuaren zuzendaitzan bete duen aurreneko ikasturteaz hitz egin dugu berarekin.

Zer da INCN (Internacional Narcotics Control Board) eta nola egiten da bertako kideen hautaketa?

Narkotikoen inguruko nazioarteko konbentzioen gauzatzea kontrolatzen duen batzordea da. Dagoeneko urte batzuk dituzten konbentzioak dira, eta, beraz, INCNren zeregina da tratatu ho-

riek berrikustea, gaur egungo errealitateara egokitzea, eta gauzatzen direla kontrolatzea, Interpol-ekin elkarlanean. Estu-pefazianteak ez ezik, ikerketa zientifikorako eta medikorako funtsezkoak diren substantziak kontrolatzeaz ere arduratzen da.

Mundu mailako hamahiru adituk osatzen dute batzordea, eta

Nazio Batuen baitako ECOSOC (Consejo Económico Y Social) barruan dauden 50 estaturen artean hautatzen dituzte INCNko kideak. Ni Kolonbiako gobernuak aurkeztutako hautagaia nintzen.

Kolonbian arrakastatzat jo dute zure izendapena.

Bai, hala da. Aurtan batzordea osatzen duten 13 kideetatik 5 berritu dituzte, eta hautagaitza sendoak –Estatu Batuak, Txina, Errusia...– zeuden eta, beraz, garaipen diplomatikotzat jo dute nire izendapena. Nirea, gainera, GRULAC (Grupo de América Latina y el Caribe) guneko hautagaitza bakarra zen, eta garrantzitsua da, bereziki Kolonbiarentzat, drogen kontrolerako nazioarte mailako neurriak eta politikak erabakitzen diren organoetan egotea.

Nola eragiten du narkotrafikoak Kolonbiako errealitatean?

Indarkeria-iturri nagusietako bat da, nahiz ez den bakarra. Narkotrafikoarekin batera sortu diren legez kanpoko ekonomiek –legez kanpoko meatzaritza, pertsonen trafikoa, ingurumen suntsiketa...– talde armatu eta delitugintzako talde antolatuen sorrera ekarri du, eta horrek guztiorrek oso ondorio kaltegarriak eragiten ditu jendearengan eta lurraldeetan, estatuak kontrolatu ezin duten botere bat sortzeraino.

Gainera, botere hori nazioz gaindikoa da eta ez da Latinoamerikako mugetan gelditzen; Europan ere oso eragin gaiztoak ditu. Kolonbian narkotrafikoaren ekonomia hori guztia dagoen arren, koka sortzen den lekuetan dago pobrezia indize handiena. Hau da, ez da herrialdean geratzen den aberastasuna; kapitalen zuriketa asko iparraldeko herrialdeetan egiten da. Beraz, oso ondorio kaltegarriak dituen arazo komun bezala aztertu behar dugu, ezen, bestela, gizarte osoak suntsi baititzake.

Kolonbiako Politika Kriminaleko eta Justiziako ministro-

orde izan zinen ia hiru urtez, 2024ra arte, eta, besteak beste, drogei buruzko politika nazionala bultzatu zenuen, 'Bizia ereinez, narkotrafikoa eraitsi dezagun' izenburupean. Zertan datza?

Justizia Ministerioan egin nuen lanak hiru alderdi zituen. Batetik, politika kriminala (herrialdeko kartzela guztiak); bestetik, justizia trantsizionala (bake prozesuarekin lotuta), eta hirugarrenik, drogen politika.

Azken honi dagokionez, politika berri bat diseinatzeari ekin genion, nekazarien jazarpena, koka-matak glifosatoz urreztatzea, eta, azken batean, narkotrafikoaren katebegi ahulenak jartzera mugatuko ez zena. Alderantziz, pentsatu genuen nola egin daitekeen ekonomia ez-zilegietatik zilegietarako bidea, eta nola sor ditzakegun aukera hobekak jendearentzat pobrezia gehien dagoen lekuetan, hain zuzen ere jendearen ahultasun horretatik elikatzen baitira talde antolatutak.

Laburbilduz, bi ardatz zituen gure politikak: bat, oxigenoa ematea komunitate zaurgarri horiei; eta bi, narkotrafikoaren katebegi gogorrenak, kapitalen garbiketa eta negozio horren zati handi bat artikulatzen duten pertsonak itotzen saiatzea, nazioarte mailako lankidetzan. Zerbait berritzailea izan zen, elkarrizketa zuzenak izan genituelako komunitate kokaleroekin, eta baita nazioarteko elkarrizketak ere, AEB-etako gobernuaren barne. Baina, noski, oraindik bide luzea egin behar du, guztiz gauzatu arte.

Kolonbian ibilbide nabarmena izan zenuen giza eskubideen defendatzaile gisa esparru ezberdinetan. Zure aita zena-ren memoria berreraikitze gogoa egon da beti presente, ezta?

Bai, nire aita giza eskubideen defendatzailea zen eta 1998an erail zuten bere bulegoan. Horrek, noski, asko markatu du nire mundu-ikuskeran. Modu konprometituan egin dut nire



■ Narkotrafikoaren eta legez kanpoko ekonomien inguruan sortu diren talde armatuek estatuak kontrolatu ezin duen botere bat sortu dute. Gainera, botere hori nazioz gaindikoa da. Beraz, oso ondorio kaltegarriak dituen arazo komun bezala aztertu behar dugu.




**Camilo Umaña
Oñatiko Lege
Sozilogia
Institutuko
zuzendari
akademikoa
da iazko irailaz
geroztik. Ondo
ezagutzen
du Oñatiko
erakunde,
ikasle bezala
ere bertan
egon baitzen
masterra egiten**

herrialdeko gatazka armatuaren biktimen alde, eta saiatu naiz bizipen-erperientzia hori ez zedin izan, besterik gabe, sentsibilitate kontu bat, jendearentzako eza-gutza-erabilgarri baizik. Horrek aukera eman dit Nazio Batuekin, Kolonbiako bake erakundeekin, unibertsitateekin eta gobernu kanpoko erakunde ezberdinekin lan egiteko, beti ideia edo helburu beraren inguruan: nola murriztu gizakiaren sufrimendua.

Zuk zeuk ere erbestera joan behar izan zenuen, ezta?

Bai, nire aitaren erailketaren ostean erbestera atera behar izan genuen, mehatxuengatik. Belgikan bizi izan ginen urte eta erdi. Gero itzuli egin ginen Kolonbiara eta bertan amaitu nituen ikasketak, baina hango egoera beti izan da zaila, eta herrialdetik atera



Camilo Umaña bere bulegoko lan-mahaian. Aurten, Sancti Spiritus unibertsitateko berritze lanak direla eta, Lege Soziologia Institutua Gipuzkoako Artxibo Probintzialera lekualdatu behar izan da

Lege-Soziologia Institutuak euskal errealitatearekiko interlokuzioan gehiago sakontzea gustatuko litzaidake, besteak beste. Ildo horretan Eusko Jaurlaritzako Justizia sailarekin batera ari gara lanean, justiziaren arloko politika publikoak ebaluatzeko.

behar izan nuen zenbaitetan.

Erbestaldia atzerritar izateko modu oso zaila da; izan ere, atzerritarra izateak esan nahi du maletak beti prest edukitzea, George Simmelek zioen moduan, baina erbesteratuta egoiteak dakar ez jakitea zein diren zure maletak, ezta zer daukazun ere. Oso bizipen gogorra da, asko irakasten duena, bizitzan garrantzitsua denaz, zure barne indarra aurkitzeaz... Orain, sorterritik kanpora bizi naizen hone-

tan, atzerritar bezala bizi naiz, jakin min soziologiko handiarekin, eta tokian tokiko gauzez ikasi eta bat gehiago izaten ikasiz.

Aurreneko ikasturtea amaitu da Oñatiko Lege-Soziologia Institutuko zuzendaritza hartu zenuenetik. Zein da balantzea?

Apartekoa. Sancti Spiritus unibertsitateko berritze lanak tarteko, artxibo historiko probintzialera etorri behar izan dugu -40 urteko ibilbidean lekuz aldatu den lehen aldia, horrek dakarren guztiarekin-, baina ez da eragozpena izan. Artxiboak instalazio bikainak ditu, eta gure ikasle, irakasle eta ikerlariak oso eroso egon dira.

Bertan egon garen erakundeen arteko elkarrizketa ez da izan maizterrena, baizik eta gizarte arazoekin kezkatuta dauden erakundeen artekoa, eta horrek aukera eman digu harremanak estutzeko. Horrela, gaur esan dezaket lege-soziologia institutua askoz integratuagoa dagoela erakunde horiekin. Adibidez, diktadura garaiko errepresioaren inguruko erakusketa bat antolatu genuen elkarrekin, artxiboko dokumentazioa baliatuz, eta oso esperientzia aberasgarria izan da. Oso gustura egon gara, baina, jakina, Institutuaren altxor preziatuenetako bat liburutegia da, eta hori unibertsitatean dagoenez, hara itzultzeko gogoz ere bagaude,

Institutuaren jardunari berari dagokionez, aurten %30-35 hazi da ikasle, aplikazio eta bisitari kopuruari dagokionez; hau da, Institutuaren erakarmen ahalmena handituz doa ezagutza eta egiaren bilaketa balioa galtzen ari diren gizarte honetan. Urtero

350 inguru pertsona etortzen dira Oñatira munduko toki ezberdin askotatik gai desberdinen inguruan gogoeta egitera, iker-tzera, ikastera... eta hori ikaragarria da. Institutuak lege-soziologiaren arloko erreferente izaten jarraitzen du mundu mailan.

Azken bi-hiru hamarkadetan lege-soziologiaren arloan mundu mailan egon den produkzioa aztertu eta mapeatuko bagenu ikusiko genuke zenbaterainoko lotura duen Oñatik mundu mailan sortu den ezagutzarekin. Agian, baina bat jartzearen, esango nuke 'Oñati' marka hobeto saltzen asmatu beharko genuke-ela, lan horietako asko beste unibertsitate batzuen izenean argitaratzen direlako, Oñatirekin lotura estua izan arren.

Beste urte bat geratzen zaizu, gutxienez, Institutuko buru. Zer arrasto utzi nahi zenuke?

Hau bezalako instituzioen lan zailenetako bat zera izaten da: nola eutsi urte luzez kalitate maila altuari, jende askoren ahalgina eskatzen baitu. Beraz, nire nahia ez da haustura bat eragitea, ezta gutxiagorik ere, baizik eta egin den on guztia sendotzea.

Horrekin batera euskal errealitatearekiko interlokuzioan askoz gehiago aurrera egin badezakegu, munduko testuingurua aintzat hartuta, eta, gainera, gure ikerketa propioa egin badezakegu, uste dut Institutuak etorkizun handiko proiektzioa daukala. Ildo horretan, azpimaratuko nuke, Eusko Jaurlaritzako Justizia sailarekin batera ari gara lanean, justiziaren arloko politika publikoak ebaluatzeko. ■

 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Berezao Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

	Maite Aiestui Kortabarría Irakaslea
	Arantzazuko Ama, 3 behea 943 53 36 57
	20560 OÑATI (Gipuzkoa) 4sgoiena@gmail.com
Ingeleseko Akademia Listening Speaking Reading Writing	www.4sgoiena.com

OÑATIKO hezkuntza-komunitatearen PROIEKTUA

> Oñatiko hezkuntza-komunitatearen azterketa egiteko lehen fasea itxi du Udalak. > Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko aholkulariek dinamizatu dute.

Oñatiko Udalak itxi du dagoeneko Oñatiko hezkuntza-komunitatearen azterketa egiteko lehen fasea. Urtarriletik apirilera bitartean hainbat bilera egin dira hezkuntza eragileekin, eta bilera horien helburua izan da pentsatzea zein bide-orri jarraituko duen Udalak hezkuntza komunitatearen inguruko herri mailako hausnarketa bat egin eta hobekuntzak proposatzeko.

Izan ere, ekimen ugari biltzen ditu komunitateak, baina ekimen horien koordinazioa eta lankidetzak aberatsagoak izateko bideak aztertu nahi dira, herrian egon daitezkeen askotariko ahots eta ikuspuntuetatik. Garrantzi berezia du prozesu ireki bat abiarazteak, herritarrek erabaki dezaten zeintzuk diren herriko hezkuntza komunitateak dituen kezak eta beharrak eta horiei erantzuteko zer egin litekeen, betiere, hezkuntza komunitatea helburu.

Prozesuaren lidergoan begirada teknikoa, politikoa nahiz akademikoa uztartuko dira. Lehen fase hau Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko aholkulariek dinamizatu dute, eta hainbat batzar egin dituzte Udaleko ordezkari politikoekin (EH Bildu nahiz EAJ), Udaleko zenbait teknikarirekin, Oñatiko ikastetxe guztietako ordezkariekin zein hezkuntza ez formaleko eragileetakoekin (Gaztelekua, Txipistin, Musika Eskola, Ludoteka eta Aloña Mendi).

Prozesuan zehar hezkuntza komunitatetako kide diren 11 erakundeetako ordezkariak partehartu dute. Denetara 7 mahai saio egin dira, eta mahai horietako bakoitzean aurkeztu da hezkuntza-komunitatearen inguruko azterketa egiteko balizko bide-orri bat, eta bileraz bilera eragile desberdinen ekarpenak jaso. Hiru mailatako ekarpenak eskatu zaizkie bileretara bertaraturakoei:

1. Prozesua bera abiaraziko luketen jakitea, eta hala izatekotan, proposaturako ibilbidearen hobetzekoak proposatzea.
2. Hurrengo fasean irekiko litzatekeen entzute etnografikoen faserako arretagune batzuk proposatzea, gaur egun Oñatiko hezkuntza komunitatea sartzeko gako izan daitezkeenak.

3. Entzute etnografikoak hasi ahal izateko nor elkarrizketatuko luketen pentsatzea.

Mahai desberdinekin egindako bileretan ontzat jo zen ibilbide-orria, eta partaideek prozesua babestu zuten. Bestalde, hasierako diseinuan aurreikusi ez ziren ekarpenak ere jaso ziren, hala nola; adin txikioen ahotsa jasotzeko hezkuntza ez formalean diartuden kideekin batera espazioak sortzea. Konstraste bileretan azaleratu da haien iritzia jasotzeko beharra, haien hitza jasotzea funtsezkoa baita hezkuntza komunitatea birpentsatzeko orduan.

Bigarren ekarpena prozesuaren komunikazioan kokatu da. Hala, informazioa etxe guztietara iristea bermatzeko, herriko komunikabideen kanalez gain, ikastetxeei eskatu zaie beren kanalak ere erabiltzea prozesuaren berri emateko garaietan, eta guztiak prest agertu dira gurasoekiko informazio-zubi izateko.

Prozesuari itxiera emanez, apirilaren 16an bilera bateratua egin zen prozesuan parte hartu zuten eragile guztiekin, ekarpen guztiak azaldu eta bide-orria aho batez balioztatu zen.

Adostu da herri mailako entzute etnografikoak egingo direla. Alegia, hezkuntza-komunitateko 20-30 kideri bakarkako elkarrizketak egingo zaizkiela, herrian egon daitezkeen ikuspegi, bizipen eta sentsibiltate ezberdinak jaso ahal izateko. Horrez gain, entzute etnografikoetan parte hartzera deituak izango diren kideen lehen zerrenda bat proposatu dute fase

LEIHOAK	GORTINAK
TOLDOAK	ELTXO-SAREAK
	
MAKOR DENDA	
 LIZAUUR 6	 943 106 235 / 688 862 512



◀ Emaizten irakurketa eta komunikazio saioa. 2026ko apirilaren 16. Oñatiko Udala.

GARRANTZI BEREZIA DU PROZESU IREKI BAT ABIARAZTEAK, HERRITARREK ERABAKI DEZATEN ZEINTZUK DIREN HERRIKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAK DITUEN KEZKAK ETA BEHARRAK ETA HORIEI ERANTZUTEKO ZER EGIN LITEKEEN, BETI ERE, HEZKUNTZA KOMUNITATEA HELBURU.

honetan parte hartu duten kideek, herrian egon daitezkeen eragile desberdinak bilduz.

ARRETAGUNEAK

Prozesuaren hurrengo fasean egingo diren bakarkako elkarrizketak egiteko, arretagune hauek adostu dira:

- **HIZKUNTZA:** Oñati herri euskalduna izanik ere, kezka handia dago gaztelaniak hartu duen lekuarekin, batez ere, gazteen artean.
- **ANIZTASUNA:** Aniztasun kultural, linguistiko, funtzionalei erreparatzeko eta modu egokian erantzuteko estrategia argi

eta adostuen beharra.

- **AISIA:** Aisia taldeetan eta Hezkuntza Arautuaren arteko zubi falta. Aisiarekin lotuta, birpentsatze ariketa egitearen beharra zehaztu da, aisia eredia eta haurren denbora librearen arteko orekaren baitan.
- **JAZARPENA:** Haur eta gazteen artean jazarpen kasuei erantzuteko strategi bateratuen koordinazio falta dela nabarmendu da. Era berean, jazarpenak kirol zehatz batekin eta maskulinitate tradizionalekin erakusten dituen loturak ere azaleratu dira.
- **SAREEN ARTEKO TENTSIOAK:** Hezkuntza Arautuan hiru sare elkarlanerako testuinguru egokiak sortzeko beharra.

Horrez gain, entzute etnografikoetan parte hartzera deituak izango diren kideen lehen zerrenda bat proposatu dute fase honetan parte hartu duten kideek, herrian egon daitezkeen eragile desberdinak bilduz.

Hort

az, bide-orri hau adostuta, Udalalak ondorengo asteetan kudeatuko du gaia uda ostean prozesuari ekin ahal izateko.

Amaitzeko esker hitzak prozesu honetan parte hartu duten kide guztiei. Haien ekarpenak eta eskuzabaltasuna ezinbestekoa izan da aurrera begirakoak Oñatiren ezaugarrietara egokitzeko eta herriko hezkuntza komunitateak dituen erronkak identifikatzeko. ▀

● OÑABIKE
est. 95

Erabilgarri daude lur azpiko aparkalekuetako kargaleku elektrikoak

Launa karga-puntu egokitu ditu
Udalak Zubikoa eta Kalegoienako
parkingetan

Erabilgarri daude, jada, Udalak lur azpiko aparkalekuetan egokitu dituen zortzi karga-leku elektrikoak –launa karga-puntu Zubikoa eta Kalegoienako parkingetan–. Karga-gailu bakoitzak 22 kilowatteko potentzia du –karga nahiko azkarra ahalbidetzen duena–, eta bi karga puntu, alde bakoitzean bana. Ibilgailu bakarra konektatzen bada potentzia guztia baliatu ahal izango du, eta bi autokaldi berean erabiltzen badute, potentzia banatu egingo da.

Karga-gailuak erabiltzeko *Zunder* aplikazioa deskargatu behar da. Karga-leku bakoitzean dagoen QRaren bidez eskuratu ahal izango dugu aplikazioa, eta behin deskargatuta, libre dauden karga-puntuak lokalizatu, zenbateko karga nahi dugun zehaztu, eta ordaindu egin ahal izango dugu aplikazioaren bidez. Oraingoan, soilik aplikazioaren bidez egin ahal izango da ordainketa, baina, aurrerago, kreditu txartel bidez ordaintzeko aukera ematea aztertzen ari da Udala.

Udalak ipini dituen karga-lekuak ez daukate mahuka edo kable integraturik eta, beraz, erabiltzaileek beraien autoko kablea erabili beharko dute. "Segurtasun- eta mantentze-irizpideen arabera hartutako erabakia izan da", azaldu zuen Xabier Igartuak, Zerbitzuak batzordeko buruak, "ekintza bandalikoak edo kableak lapurtzeko arriskua murrizte aldera". Prezioari dagokionez, kilowatt orduko 0,35 euro balioko du kargatzeak.

Lur azpiko aparkalekuetan egon ohi diren konexio arazoak ekidin eta zerbitzuaren erabilera errazteko asmoz, doako Wifi gunea egokitu du Udalak karga-lekuen inguruetan, eta gune horietako argiteria ere hobetu du.

Karga-puntu hauen inguruan dauden aparkalekuak –behar bezala seinaleztatuta daude– ibilgailua kargatzeko soilik erabili ahal izango dira, baina TAO gunean daudenez, aparkatzeko ticketa ipini beharko da, gainerako ibilgailuetan bezala.



Goian, Xabier Igartua zinegotzia kargalekuen funtzionamendua azaltzen. Behean, auto bat bateria kargatzen.



Gogoratu, lehen hiru orduak dohainik direla eta denbora hori nahikoa dela karga osoa egiteko.

BISITARIENTZAT LAGUNGARRI

Karga-leku hauek edozein herritarrek erabili ahal izango ditu, baina Oñatira datozen bisitari eta turistentzat bereziki lagungarriak izango direla uste du Igartuak. "Normalean, auto elektrikoak daukanak etxean kargatu ohi du, baina kanpotik datozenentzako eragozpena izan daiteke karga-punturik ez egotea, eta halako azpiegitura bat edukitzea lagungarria izan daiteke turisten egonaldia erosoagoa izan dadin".

Karga-leku elektrikoak instalatzea udal gobernuaren Energia Planaren baitan jasotako zortzi ekintzetako bat da, eta zortzi karga-puntu hauen instalakuntzan 37.835 euroko (BEZ barne) inbertsioa egin du Udalak, eta beharra ikusiz gero, karga-puntu gehiago erraz instalatzeko aukera ematen du. •

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Argiteria publikoaren %85 LED da dagoeneko

Azken bi urteetan kaleko 688 argi aldatu ditu Udalak, eta horri esker kontsumoa %67 murriztu eta argindar fakturan %72 aurreztea lortu du

Argindar kontsumoa murriztea da udalak 2022an onartutako Energia Planaren helburuetako bat eta, ildo horretan, kale-argiteria publikoaren diagnostikoa egin zuen 2023an. Azterlan hark honako datuak jarri zituen mahai gainean: Oñatiko kale, auzo eta industria guneetan dauden 2.741 argi puntuetatik 1.642 LED teknologiadunak ziren, eta gainerako 1.099 luminariak sodio lurrunezkoak –kontsumo handikoak–.

Hori horrela, Udalak esku-hartze garrantzitsua egitea erabaki zuen: kale-argiteria publikoko beste 688 farolatan LED argiak jartzea, 390.619 euroko inbertsioa eginda. Lan horiek amaitu dira jada, eta, dagoeneko, emaitzak azalerraten hasi dira, Xabier Igartua Zerbitzuetako batzordeburuak azaldu duenez: "argindar kontsumoa %67 murriztu da eta, horri esker, urteko argindar fakturan %72 aurreztuko dugu –65.317 euro urtean–". Apirileko datu zehatzak –orduan amaitu ziren argiak berritzeko lanak– azaldu zituen Igartuak adibide moduan: urtebeteko epean 30.256 kW/h-tik 9.979 kW/h-ra jaitsi da kontsumoa, eta argindarraren faktura 6.130 eurotik 1.693ra. "Horrenbestez", gaineratu zuen, "6 urteren buruan amortizatuta egongo da egindako inbertsioa".

LED teknologiarara aldatu diren 688 kale-argiak herrian zehar dauden 14 argindar-kuadreri lotuta daude, era honetan: Ugarkalde (126), San Martin (150), Roke Azkune (61), Kalegoiena (73), Ibarra (57), Ulma-Goribar (39), Auzabri (34), Etxeberrialde (47), Otadui (32), Olabarrieta (29), San Juan kale (25) eta Arantzazuko Ama (28). Horrenbestez, argiteria publikoko %85 (2.330 argi puntu) LED teknologiaduna da, jada, eta 411 argi (%15) geratzen dira aldatzeko. Azken hauetan pausoz pauso, tokian tokiko proiektuen bidez joango dira LED teknologia ezartzen.

Kaleko argiterian ez ezik, besteak beste Azkoagainen eta Zubikoako kantxa urdinean nahiz pilotalekuan ere ipini ditu Udalak LED argiak, kontsumoa murrizteko asmoz, beti ere.



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

Uztailaren 19an Bergaran egingo den ekitaldi politiko-instituzionalean parte hartzera deitu dute EH Bildu eta EAJko hamalau alkatek

Euskal Herriaren historiako bi mugarri gogoratuko dituzte bertan: Foruen abolizioaren 150. urteurrena eta Alkateen Mugimenduaren 50.a

Bi mugarri historiko gogoratuz –1876ko uztailaren 21eko Foruen abolizioaren 150. urteurrena, eta 1976an Bergaran bildu zen Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena–, uztailaren 19an Bergaran egingo den ekitaldi politiko-instituzionalean parte hartzeko deia luzatu dute EAJ eta EH Bilduko hamalau alkatek, alderdi bakoitzeko zazpi. Gernikako Batzar Etxean egin zuten agerraldia ekainaren 18an, eta Izaro Elorzak, Oñatiko alkateak, eta Leire Artolak, Beasaingoak, hartu zuten hitza.

Aurtengoa, garrantzi historiko eta politiko bereziko urtea dela adierazi zuten, 150 urte betetzen baitira foru-erregimenaren abolizioa gertatu zenetik, Bigarren Karlistadaren amaieran. "Nafarroa Garaia kasuan, burujabetza instituzionalaren murrizketa sakona lehenago gertatu zen, 1841eko Lege Hitzartuaren



Izaro Elorzak, Oñatiko alkateak, eta Leire Artolak, Beasaingoak, hartu zuten hitza hamalau alkateen izenean

bidez, Lehen Karlistadaren ondoren. Lehenago, 1789-1790 artean Frantziako Iraultza delakoak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren eskubide historikoen abolizioa ekarri zuen", gaineratu zuten.

Hala ere, 1876ko abolizio hartatik mende bat geroago, 1976ko uztailaren 21ean, Euskal Herriko hainbat udal ordezkari Bergaran bildu ziren, Euskal Herriaren nortasun nazionala, eskubide historikoak, udal tradizio demokratikoa eta autogobernurako nahia aldarrikatzeko. Eta Alkateen adierazpen hark gaurkotasan osoa duela nabarmendu zuten, "Euskal Herriak ukatuta jarraitzen duelako, zatituta eta burujabetza nazionalik gabe".

ETORKIZUNERA BEGIRA

Uztailaren 19ko ekitaldia ez da oroimen historikoaren aitortza ekitaldia izango soilik, "gaur egungo autogobernuaren inguruko eztabaida politiko eta instituzionala elikatzeko" modu bat baizik, gaineratu dute. "Etorkizunera begira ditugun erronkek –erlaketak ekonomikoa, energia trantsizioa, ongizate-Estatuaren etorkizuna, migrazio fenomenoak, hizkuntzaren biziberritzea, segurtasun geo-pollitiko edo Europako integrazioa sakontzea– botere politiko eraginkorra eskatzen dute. Gaurko auziek gaurko tresnak eskatzen dituzte, eta Euskal Herriak autogobernu eta burujabetza handiagoa behar ditu bere etorkizuna bere herritarren borondate demokratikoaren arabera antolatuzeko". Ildo horretan, Euskal Herriaren nazio izaera eta herritarrek beren etorkizun politikoa modu libre eta demokratikoan erabakitzeke duten eskubidea aldarrikatzeko ekitaldia izango da. •



Santipillauko bihurgunea zabaltzeko lanak aurrera

Aurrera doaz Santipillau baserri ondoko bihurgune estua zabaltzeko lanak. Bi obra egiten ari dira aldi berean: batetik, Urrutxuko ur-biltegia eta Zañartu lotuko dituen ur-hodi berria sartzeko ari dira bide bazterrean. Obra hau estrategikoa da herriarentzat, izan ere, gaur egun irteera bakarra baitago ur-depositotik herri aldera –hilerri aldera–, eta hodi horretan hornidura mozketaren bat gertatzen bada, herri osoa geratzen da ur barik. Orain, aldiz, bigarren linea bat egongo da herria urez hornitzeko. Hoditeria berria instalatzeko bidea zulatu behar zela baliatuz, Santipillauko bihurgunea zabaltzeko lanak batera egitea erabaki du Udalak.

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea

Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaiak 'Irisgarritasun ibilbide' berri batean parte hartzeko deialdia egin du

UZTAILAREN 6an DA HITZORDUA, FORUEN PLAZAN, 10:00etan

Oñatiko herrigunean akzesibilitate edo irisgarritasun mailan dauden gabeziak jasotzea da Pertsona Nagusien Mahaiak antolatzen dituen **IRISGARRITASUN IBILBIDE**en helburua. Ondoren, ibilbidean zehar antzemandako gabeziak Udalarri helarazten dizkio honek konponbidea eman diezaien, ahal den neurrian. Orain arte 3 ibilbide egin dituzte eta hau laugarrena izango da; San Martin auzoko eta Errekaldeko oinezkoen ibilbideak gainbegiratu dituzte. Uztailaren 6an da hitzordua, Foruen plazan, goizeko 10:00etan. Bi orduko iraupena izango du ibilaldiak. Denon artean herri irisgarriagoa egitea da helburua eta, horregatik, Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaiak herritar guztiak gonbidatzen ditu ibilbidean parte hartzera.



ERROLDA: BAZTERKERIAREN ERREGISTROA

↳ Bizitzak Erdigunean Oñati

Politikariek eta erakundeek gehiegi hitz egiten dute pertsona ahulena gizarteratzeko premiei buruz. Premia horietako bat da gurera etorri direnei duintasuneko harrera eskaintzea. Kontrara, hainbatetan errola ukatzen zaie. Batzuetan izango da Udalaren utzikieragatik, bestetan, aldiz, etxejabeak alokairu kontratuan horrela ezartzeagatik edo baita lan kontratu gabe etxean lanean duzun hori ezkutatzeko helburuarekin. Eta hori da, finean, gertatzen dena: erroldarik ez izateak pertsonak ikusezin bilakatzen dituela.

Hamarkadak pasa dira erroldari buruzko araudiak behar bezala aplikatzen ez direla, eta, are gehiago, joan zen urteko ekaina arte EUDELe ez zituen inolako irizpide orokorrik argitaratu Udalek erroldaren kudeaketa txukundu zezaten. Aitzitik, eta Udalek irizpide horiek aplikatzen ez dakitela aitzaki, oraindik ere zain jarraitzen dugu errola araudia egoki ezarri dadin. Bide horretatik, esan behar da martxoko Goiena astekarian EAJ alderdiak, bere kanpainaren baitan, irizpide horien aplikazio eza egotzi ziola EH Bilduri; baina, orobat, aipatu behar da EAJren esku dagoela argitaratzea EUDELe zehazteke dituen aplikazio irizpide horiek, beraiek baitute nagusitasuna EUDELeko Batzorde Eragilean. Arinegi hitz egiten da egoera zaurgarri buruz, ostera ezer ez egiteko. Ezin da onartu, hauteskondeei begira, errola eskubidearekiko alderdien kanpainarik.

Horiek horrela, bailarako eta herriko mugimendu feministak, erroldaren eskubidea ikusarazteko ekintetan, hainbat lan eta ekintza antolatu eta egin ditu. Azken horietakoa izan da erroldaren inguruabarrak argitze aldera, etxeetan banatu diren esku-orriena: "Erroldari buruzko argibideak". Esku-orri horietan erroldari buruzko hainbat galderen erantzunak azaltzen dira, ahalik eta modu zehatzenean. Bestalde, esku-orriaren azalean ageri den QRak esku-orri bera hainbat hizkuntzetan irakurtzeko aukera ematen du (arabieraz, urduz eta gazteleraz).

Gure herrian bizi diren pertsona orok du eskubidea bertan erroldatua izateko, eta, aldi berean, guztion ardura da pertsonak duintasunez eta berdinean tratatzea, horrek neurtzen baitu, besteak beste, herriaren bazterkeria maila. **ERROLDARIK GABE ESKUBIDERIK EZ!**



▼
ERROLDAREN ESKUBIDEA IKUSARAZTEKO EKINEAN, 'ERROLDARI BURUZKO ARGIBIDEAK' ESKU-ORRIA BANATU DU ETXE GUZTIETARA BAILARAKO ETA HERRIKO MUGIMENDU FEFMINISTAK





Irudi korporatiboa berritu du Mankomunitateak

Goiko irudian ikusten dena da Debagoieneko Mankomunitateak aurrerantzean izango duen marka edo irudi berria. Elkarri loturik dauden D eta G hizkiez osaturiko logoak eskualdearen nortasuna biltzen duten elementu grafikoak ditu: komunitatea irudikatzen duen biribila, naturari erreferentzia egiten dion hostoa, eta eskualdea gurutzatuz herriak lotzen dituen ibaia gogorarazten duten kurbak.

GOBERNANTZA EREDU BERRIA

Irudia berritzearekin batera, Debagoieneko Mankomunitatearen aro berri baten hasiera ere iragarri dute bertako ordezkari politikoek, lankidetzaz publiko-komunitarioa eta gertutasuna ardatz izango dituen gobernantza ereduaren aldeko apustua berretsiz.

Mankomunitateak hiru ardatz estrategiko nagusitan sakonduko du: arlo sozialean, ekonomikoan eta ekologikoan. Dorleta Elkorobarrutia lehendakariak nabarmendu duenez, hiru dimentsio hauek estu lotuta daude: "Ez dago ekonomia sendorik pertsonen ongizaterik gabe, ezta ongizaterik ingurune osasuntsurik gabe, eta ez dago trantsizio ekologikorik komunitate sendorik gabe". Eredu berriak lidergo kolektiboa eta lankidetzaz sustatzea du helburu, erronka garaikideei, hala nola aldaketa klimatikoari, digitalizazioari edo desberdintasun sozialei, modu partekatuan erantzuteko.

Irailetik aurrera jarriko da martxan eredu berria.

Euskadiko 53 'Txapel-dun Ezkutu'-en artean dago AUTLAN

Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuak, osatu berri duen ikerketaren arabera, Oñatiko AUTLAN EMD enpresa Euskadiko 53 'Hidden Champions' edo 'Txapel-dun Ezkutu'-etako bat da. Horrela deitzen zaie espezializazio handiko nazioarteko nitxoetan liderrak diren enpresei, eta beraien ezaugarrien artean nazioartekotzea, berritzeko gaitasuna eta txokiko errotzea dutenei. "Enpresa horiek garrantzi berezia dute EAeko lehiakortasunerako eta ongizaterako", dio Orkestrak. AUTLANekin batera, Tubacex, Danobat, Bellota, Goizper edo Copreci bezalako enpresak daude. Denera, 53.

Orkestra-ren arabera, "zaindu" beharreko enpresak dira, eta, hala, dei egiten die bankuei (arlo finantzarioan) zein erakundeei (politika malguen diseinuan), neurriak har ditzaten enpresa horiek errealitate berri eta ezberdinetara egokitu ahal izan daitezen.

AUTLAN enpresa mexikarra 2020an iritsi zen Oñatira, Cegasa erosi ostean, eta manganeso elektrolitiko bioxidoa (EMD) ekoizten du, baterien fabrikazioan erabiltzeko, besteak beste. Oñatiko lantegian 50 behargin ditu eta ia 25 milioi euro fakturatu zituen. Ekoizpenaren %98a esportatu egiten du Alemania, Belgika, Eslovenia eta Estatu Batuetara.



%7,6 hazi zen ia ULMA Taldea

ULMA Taldeak 1.239 milioi euroko salmenta konpilatuekin itxi zuen 2025eko ekitaldia, aurreko urteetan baino %7,6 gehiago. Hala ere, kostuen eta marjinen gainera presioaren ondorioak nozitu zituen ULMAk, eta hazkunde iraunkorrerako gaitasuna erakutsi duen arren, irabazi garbia 2024an baino %13,7 txikiagoa izan da, ia 95 milioi gutxiago. Taldearen diru sarreraren %69 kanpoko merkatuetatik datoz, batez ere Europatik. Enpleguari dagokionez, 2025ean 336 pertsona berri hasi ziren lanean ULMAN, 6.083 langileko plantilla osatzeraino, eta 1,3 milioi euro bideratu zituen gizarte, kultura, kirola, hezkuntza eta garapen jasangarriarekin lotutako ekimenetara.



Raul Garcia,
Oneko Oñatiko
Energia
Komunitateko
lehendakaria,
eta Aritz
Otxandiano,
Fagor Taldeko
Iraunkortasun
arduraduna,
hitzarmena
sinatzen

Fagor Onekoko bazkide laguntzaile bihurtu da

Fagor Taldea Oneko Oñatiko Energia Komunitateko bazkide laguntzaile bihurtu da. Aritz Otxandiano Fagor Taldeko Iraunkortasun arduradunak adieraz du Oneko gisako energia komunitateek esangura handiko ekarpena egiten dutela trantsizio ekosozialaren eta iraunkortasunaren bidean, eta komunitatearen ahalduntzerako bitarteko ere badirela, eta balio horiek bat datozela Fagor 2030 iraunkortasun estrategiarekin. Raul Garcia Onekoko lehendakariak oso garrantzitsutzat jo du hitzarmena, ekonomikoki emango dion egonkortasunaz gain, Fagor bezalako erakunde handi batek duen ezagutza eta eskarmentua laguntza handikoak izango direlako. Fagorrek 110.000 euroko ekarpena egingo dio.

Bizigune eta ASAP programak aukera onak dira etxebizitza alokairuan jarri nahi duten herritarrentzat

ALOKABIDEk kudeatzen dituen programen inguruko informazioa eman du Udalak, etxebizitza hutsak merkaturatzeko xedez

Alokairu eskuragarria sustatzea da Udalak otsailean aurkeztu zuen Etxebizitza planaren lau ardatzetako bat, eta, ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak ALOKABIDE sozietate publikoaren bidez kudeatzen dituen BIZIGUNE eta ASAP programei buruzko informazio saio irekia eskaini zuen ekainaren 23an. Oro har, etxebizitza hutsak merkatura bideratzea dute xede nagusi aipatutako programa horiek. "Etxe jabeek berme batzuk eskaintzen dizkiete eta, era berean, ahalbidetzen dute etxe bila ari direnek aukera gehiago edukitzea etxebizitza bat alokatzeko. Aldebiko abantailak eskaintzen dituzte, nahiz eta ez diren behin betiko soluzio", azaldu zuen Izaro Elorza Arregi alkateak. Harekin batera, Iñigo Ruiz Barron Hirigintza batzordeburuak eman zituzten azalpenak.

BIZIGUNE

*Biziguner*i buruzkoak azaltzen hasi zuten saioa. Oro har, alokairu babestura bideratzen ditu etxebizitza hutsak, merkatu librean etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen horretarako aukera eskainiz –diru sarreren araberako alokairua ordaintzen dute, nahiz eta etxe jabeak teknikari batek egindako etxebizitzaren balorazioan finkaturiko zenbatekoa jasoko duen–. "Alokabidek kudeaturiko programa da. Gutxienez 6 urterako alokairu kontratua sinatzen da, eta, epealdi horretan, hileko errentaren ordainketa bermatzen da. Teknikari batek baloratuko du etxebizitza bat programan sartzeko moduan dagoen ala ez, eta %0ko interesarekin itzuli beharreko 15.000 eurora arteko aurrerakina eskaintzen da hobekuntzetarako",



Izaro Elorza alkateak eta Iñigo Ruiz Hirigintza batzordeburuak eman zituzten azalpenak

» Etxe jabeek berme batzuk eskaintzen dizkiete eta, era berean, ahalbidetzen dute etxe bila ari direnek aukera gehiago edukitzea etxebizitza bat alokatzeko.

» Gaur-gaurkoz Oñatiko 55 etxebizitza daude **Bizigune** programan izena emanda, eta 90 eskatzaile inguru daude **Etxebiden**.

argitu du Hirigintza batzordeburuak. *Etxebiden* izena emandako pertsonen bideraturiko alokairuak dira. Gaur-gaurkoz, Oñatin, 55 etxebizitza inguru daude *Biziguner*en zerrendan, eta 90 eskatzaile inguru daude *Etxebiden*.

ASAP

Ondoren, ASAP programaren ingurukoak azaldu zituzten udal ordezkariak. Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza eskaintzen du programa honek, eta bere helburu nagusia da etxebizitza hutsak merkaturatu arrazoizko prezioan jartzea. Horretarako, aseguru-polizen bidezko berme-sistema bat eskaintzen dio Eusko Jaurlaritzak etxe jabeak, eta, trukean, gehieneko errenta finkatzen du, merkatu librekoagoak baino baxuagoak eta lehiakorragoak izan daitezzen.

AURREZ AURREKO ARRETA

Programa horiekin bat egin gura duenak, Debagoieneko Mankomunitateak etxebizitza aholkularitza, birgaitzeetarako laguntza... eskaintzeko duen SURADESA zerbitzuan izango du horretarako aukera. Oñatin, asteartetan eskaintzen da zerbitzua, 9:30etik 13:00etara, Onaroren bulego berean (Bidebarrieta, 24). Hitzordua hartu beharra dago, 900 25 12 51 telefono zenbakira deituta, edo, asteartean bertan hartu gura bada, 943 78 94 11 telefono zenbakiaren bidez.

» **Bizigune eta ASAP** programei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, SURADESAko teknikaria astearte goizetan egoten da Oñatin, Onaroren bulegoan. Aurretik hitzordua hartu behar da

Emakumion Etxia

Izan parte!



EMAN DITUGU LEHEN URRATSAK

Hilabete pasa berri da Oñatiko Emakumion Etxeko atek ireki genituenetik. Azken urteotan eginiko lan guztiaren ostean iritsi zen eguna, eta ilusioz ireki genituen atek!

Irekiera ekitaldi jendetsua izan genuen, argi geratu zen bazegoela etxea eta proiektua babestu eta ezagutzeko gogoia eta kuriositatea. Ordutik Etxian loratu da bizitza eta herritar ugari etorri da proiektua ezagutzera eta antolatutako ekintzetan parte hartzera. Guztira 1.500 pertsona inguru izan dira lehenengo aste hauetan: bisita gidatuetan edo euren kabuz etxia ikustera gerturatu diren herritarrek, ikasleak, elkarteetako kideak, ekintzetara edo zerbitzuak erabiltzera etorri direnak, laguntza eske etorritakoak, edo tarte batez etxean egotera sartu direnak.

Pozik gaude, harrera ezin hobea izan duelako, eta lerro hauek aprobetxatu nahi genituzke eskerrak emateko.

Espero dugu hemendik aurrera berdintasunaren alde lan egiteko, feminsmoan sakontzeko, ahalduntzea sustatzeko, indarkeria matxista prozesuak laguntzeko eta sareak ehuntzeko erreferentziazko gune bilakatuko dela herrian; edonorentzat etxe.

Etxian ikusiko dugu elkar hemendik aurrera ere!

Bertakoak, urriak eta bereziak

Bada mundu osoan edo ia osoan bizi den espezierik: etxe-eulia (*Musca domestica*), sagu arrunta (*Mus musculus*) eta, noski, gizakia (*Homo sapiens*). Bizidun horiei kosmopolita deitzen zaie. Kontrara, eremu mugatu batean bizi diren espezieak endemikoak dira. Endemismoak ingurune bateko bioaniztasunaren adierazle dira, ezin baitira era naturalean handik kanpo aurkitu. Hain izaten dira bereziak, non, maiz, eremu batetako sinbolo ere bilakatzen diren: kangurua Australian eta panda handia Txinan, esaterako.

Lurralde isolatuetan ohikoak dira endemismoak: uharteetan, goi mendietan, kobazuloetan... Espezie bereko beste populazioekin ezin ugaltzean, bide ebolutibo desberdinak hartzen dituzte sarri, eta espezie berria sortu. Alta, badira itxuraz isolatuak ez diren eremuak hartzen dituztenak ere, behar ekologiko zehatzek edo beste bizidun batzuekin lehiak toki jakin batera mugatuak.



Geure inguruan ere baditugu endemismoak (animaliak, onddoak eta landareak), zaindu eta kontserbatu beharrekoak, denak. Izan ere, leku zehatz batean ugariak izan arren, hedadura txikia okupatzen dute, eta populazioa, are espeziea, arriskuan egon daiteke, ekosistemaren aldaketen aurrean. Horregatik, babes izaera ofiziala izaten dute espezie endemiko guztiek eta bizi direneko habitatek, eta geuk ere balioan jarri eta zaindu egin behar ditugu!



Goian, sugedorri kantauriarra; ezkerrean, zitori horia.

GURE INGURUKO

ENDEMISMO BATZUK

> **ZITORI HORIA** (*Lilium pyrenaicum*). Endemismo piriniar kantabriarra. Lore hori ederrak dituzenez apaingarri gisa erabili izan da. Oraintxe dugu aukera mendian loreak ikusteko.

> **SUGEGORRI KANTAURIARRA** (*Vipera seoanei*). Kantauri isurialdeko endemismoa. Landaretza ugari eremuetan bizi da suge pozoitsu hau, ehizaki ugari eta gordetzeko lekuak eskaintzen dizkietenan.

> *Speonomidius crotchi*. Euskal Herriko kakalardo endemikoa. Lehen aldiz Altsasuko koba batean aurkitua, beste hainbat leizetan aurkitu da gerora. Arantzazuko Aizkirri eta Iritegi haitzuloetan topatutako azpiespezieak aitzquirriensis izena hartzen du.

> **OKIL BERDE IBERIARRA** (*Picus sharpei*). Endemismo iberopiriniarra. Inurrijale amorratua, kantu bereizgarriatik ezagutuko dugu basoan.

> *Helictotrichon cantabricum*. Endemismo piriniar kantabriarra. Ikusgarritik gutxi badu ere, hainbat animalien bazka edo gordelekua da belar altu hau. Mendian bereizteko zail xamarra bada ere, Oñatiko plazan ikus daiteke, Gernikako haritzaren inguruan landatu berria.

> **DONOSTIAKO SUGANDILA** (*Podarcis hispanicus sebastiani*). Euskal Herriko endemikoa den animalia ornodun bakarra da. Iberiar sugandila arruntaren azpiespezie hau Donostiako Santa Klara uhartean eta Urgull mendian bakarrik bizi da.

> *Pluteus izurun*. Donostian, Anoetako estadioaren alboko ingurumarietan aurkitutako perretxikoa, ez da handik kanpora inon gehiago ikusi. Izurun, dokumentatutako Donostiaren izen zaharrena, hartzen du.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Oñati Palestinarekin herri ekimena, esker onez

Imanol Biain Arregi, Xabi Elortza Colinas, Ion Garate Ondarre, Beñat Ugalde Urkiola, Javi Urkia Odriozola, Juan Valls Romo, Antton Txintxurreta, Roberto Zabarte Abaunz, M. Asun Zelaia Zumelaga, Miren Zubeldia Plazaola, Josu Zubia Markuleta

Oñati Palestinarekin herri ekimenetik maiatzaren 20tik 24ra antolatu ditugun Palestinaren Aldeko Jardunaldietara gerturatu zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu eta modu berezian hauek posible egiteko eskuzabaltasunez lagundu diguzuen guztioi: Irizar Estankuko langileak, Gaztelekuko Lan taldea, Kultur Etxeko langileak, Lizargarate Taldeko Trikitilariak, Ramada Inn, Parabellum eta Mohama Saz musika taldeak, Itziar Ugarte eta Pernan Goñi zeuen sormen lanengatik, Begoña Colinas eta Antton Elorza, Arantza Barrena eta Marijo Ibarrondo, Miren Urkiola, Dabid Lazkanoiturburu eta Mikel Aramendi...

Hausnarketarako, salaketarako eta aldarrikapenerako ekitaldi desberdinen bitartez Palestinarekiko elkartasuna eta konpromisoa berretsi ditugu, beste behin. Gaur egun, gerrak, okupazioak, garbiketa etnikoak eta genozidioak zeharkatzen dituen testuinguru global honetan, Palestinako egoerak zuzenean interpelatu gaitu.

Palestinako zatitxo bat daukagu Oñatin, Palestina Lorategia. Txoko honek palestinaren zapalkuntza ez ahazten lagunduko digu. Elkartasun txokoa da Palestina Lorategia, palestinaren tinkotasuna gogoraraziko digun toki.

Tamalez, egoerak ez dauka hobera egiteko inongo itxurarik, eta horrek bidean aurrera egiteko gogoia eta indarra eskatzen du.

Oñati Palestinarekin herri ekimenetik uste dugu Palestinarekiko elkartasuna eta genozidioa zein gerra inperialistak salatzea denon betebeharra dela. Genozidio, apartheid eta garbiketa etnikoaren aurrean gure erantzuna antolaketa kolektiboa, presio politikoa eta elkartasun internazionalista izate horretan bidelagun nahi zaituztegu, aurrerantzean ere. Beraz, hurrengo hilabeteetan prestatuko diren lan ildo eta ekintzetan parte hartu eta bat egin nahi duzuen guztioi, jakin ezazue atek zabalik daudela eta ongi etorriak izango zaretela.

Kiroldegiko taldekako IGERIKETA eta FITNESS ekintzetarako izen-ematea

Zubikoa kiroldegiak 26-27 ikasturtean eskainiko dituen taldekako igeriketa eta fitness ekintzetako plazak zozketa bidez esleituko dira, eta zozketan parte hartzeko izen-ematea **uztailaren 6tik 19ra** irekiko da. Zozketa uztailaren 20an egingo da. Ondoren, uztailaren 22tik 29ra baja emateko aukera egongo da, eta abuztuaren 1etik 4ra taldeetan libre geratu diren plazak betetzeko aukera egongo da. Eskaintzen diren jarduera, ordutegi eta tarifen inguruko informazioa **zubikoakiroldegia@onati.eus**.



IGOTZ zerbitzuak

Igotz Ugarte Larreta
Mug.: 676257120 • 639658046
Email: igotzugarte92@gmail.com

**Oliba olio birjina
estra ekologikoa**
Aceite oliva virgen
extra ecológico

15 l.
~~105 €~~
eskeintza berezia
96 €

Eskaera egin eta etxera banatzen da

ITZULERA

Fernando Mendiguren

Iragan apirilean Bidaurretako Frantziskotar Klaratarren komentura itzuli zen María Victoria Lubian Antolín (Sor Pureza de María), 68 urtetan beste hainbat komentutan egon ostean.

Maria Victoria Bilbon jaio zen 1937ko maiatzaren 5ean, gerra zibilaren garaian. Bere aita, Federico Lubian, Monarkiaren jarraitzaile militarra, Bilbon destinatuta zegoen, eta hantxe jaio zen Maria Victoria. Bost anai-arrebetan (lau neska eta mutil bat) txikiena zen eta, bizitzako gorabeherak tarteko, Oñatira etorri zen bizitzera, Ana Maria arreba zaharrenak gobernatzan zuen Ona hotelera.

Txikitatik musikarako dohain handiak erakutsi zituen, eta musika ikasketak egiteaz gain, hotelean laguntzen zuen. Pila fabrikari (Cegasa) ere jardun zuen denboraldi batean. Egoera horretan, herriko gazteekin ere ibili ohi zen eta, hala, txantxiku batekin ere maitemindu zen. Arantzazun, Gloria Mendiola lagun minarekin egindako gogo-jardun batzuetan, aita Gaztesik konbentzitu egin zituen komentuan sartzeko. 1958a zen eta Maria Victoriak 21 urte zituen.

Komentuan sartu zen egun berean gertaera bitxi bat zen bertan: lau Lubiandarrek, elkarren lehengusuak eta Maria Victoriaren ilobak –hiru Bilbokoak eta bat Oñatikoa– Lehen Jaunartzea egin zuten. Behin Komentuan sartuta, solfeo, armonia eta akonpainamenduko ikasketak burutu zituen, eta piano karrera bukatu ondoren organista ofizial izendatu zuten, nobizia eta postu-lanteen irakasle ere izan zelarik.

Bidaurreta eta gero, Castro Urdiales (Cantabria), Lerma (Burgos), Belorado (Burgos), Artebakarra (Derio), Belorado eta Urduñako komentuetan egon zen, eta horietan guztietan Abadesa izan zen, nortasun eta profesionaltasun handiz. Denboraldi luze batean, Arantzazuko Probintziako –estatuko iparraldeko hainbat probintzia biltzen zituena– buru izendatu zuten.

Oso langilea zen. Zegoen tokian zegoela, eraikinak egokitzeko eta mantentzeko lanak egiten ziren, –neu izan nintzen lekuko Belorado eta Artebakarra-Derioko elizetan–. Bitxia bada ere, Manuel Fraga Galiziako presidentearengandik lortu zuen Beloradon jarrita dagoen gurutzatze bat, Done Jakue bidea Komentuaren ondok pasatzen delako. Hainbesteko zeresan eman duen

Beloradoko mojen auzian Burgosko Artzapezpikutzak eskumikatu ez zituen bost ahizpetako bat da. Urduñako komentutik erreskatatu zuten, mojek hara eraman baitzuten bere gogoaren kontra.



Sor Purezak idatzitako partitura liburua eta CDa.

Bere lan eta ekarpen ugarien artean, “EL

AMOR NO ES AMADO” izeneko musika liburua nabarmentzen dugu. 96 orrialdeko bilduma honek 50 partitura inguru ditu, hiru ataletan banatuta: **I. Orduen liturgia;** **II. Meza santua;** **III. Otoitzak.** Eliz musika maite dutenentzako lan bikaina.

Joan den apirilean, esan bezala, Maria Victoria Bidaurretara itzuli zen, 68 urteren ostean, bere ibilera erlijiosoa erakutsi zion komentura. Ilobok ahalegin handia egin genuen Oñatira itzul zedin, eta Bidaurretako 14 ahizpek munduko maitasun guztiarekin hartu dute eta oso ondo zainduta eta artatuta dago bertan, Sor Purezak narriadura kognitibo baitu.

Ongi etorri, Sor Pureza zure etxe honetara.

> OHAR ETA DEIALDIAK <

1986koen KINTTADIA

» Kaixo Oñatiko 1986ko kinttuak! Datorren irailaren 5ian, larunbatian, ondo pasaitteko eta istorixo zaharrak gogoraketako kintto bazkaixa antolatu du. Izena emuteko 60€ko diru sarrera egin bihar da hurrengo kontu korrontera: ES25 3035 0005 33 0051136114.

Ondoren, jarri mesedez harremanetan antolakuntza taldeiaz (kinttuak1986onati@gmail.com) informaziño barrixak helarazteko. Animau!

1987koen KINTTADIA

» Irailaren 5ean izango da, Oñatin. Bazkaria: Torre Zumeltzegi jatetxean. 1987an jaixotakoa baldin bazara, ez dudau eta animau! Informaziño gehixau: kinttuak87@gmail.com

1966koen KINTTADIA

» Irailaren 5ean egingo dute kinttadia 1966an jaiotakoek (aurten 60 urte). Bazkaria Txopekuan izango da. Ondoren dantza egiteko aukera egongo da. Kinttadara joateko asmoa dutenek 60€ aurreratu behar dute Laboral Kutxako 3035 0170 55 1700039794 kontuan, izen-abizenak jarritz, uztailaren 20a baino lehen. Autobusa egongo da Txopekuako joan-etorria egiteko. Animatu!

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLORANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ CEHAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak
Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:
✓ Heriotza ✓ Istripuak ✓ Etxebizitza
✓ Autoak ✓ Ontziak ✓ Aurrezkia
✓ Bizitza ✓ Osasuna ✓ Laborantza
Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



LGTBIQ+ kolektiboaren aldeko mozioa onartu du udalbatzak

Ekainaren 28an ospatzen den harrotasunaren egunaren harira, Oñatiko LGTBIQ+ kolektiboak aurkezturiko mozioa onartu zuen udalbatzak aho batez, ekainaren 25eko osoko bilkuran. "Gaur egun, oraindik ere, LGTBIQ+ pertsona askok diskriminazioa, irainak, indarkeria edo bazterketa jasaten dute beren identitateagatik edo maitasuna bizitzeko moduagatik. Oraindik ere badaude armairuetan bizitzera behartuta sentitzen diren pertsonak, beldurra, bakardadea edo ulermen eza pairatzen dituzten gazteak, eta oraindik ere badaude beren eskubideak egunero defendatu behar dituzten pertsonak", adierazi zuten.

"Ekainaren 28ak gogorarazten digu aniztasuna aberastasuna dela, eta gizarte justu eta demokratikoago bat eraikitzen dela pertsona guztiek, salbuespenik gabe, errespetuz eta berdintasunez bizi ahal dutenean", gaineratu zuten. Ildo horretan Udalarari eskatu zioten espazio seguruak, inklusiboak eta diskriminaziorik gabekoak sustatzea. "Harrotasunez aldarrikatzen dugu gure existentzia, gure aniztasuna eta gure eskubideak. Izan ere, Harrotasuna ez da soilik festa. Harrotasuna memoria eta erresistentzia ere bada, duintasunez eta askatasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzea. Ez dezagun ahaztu, inor ez da libre izango denok libre izan arte", amaitu zuten.



Bitoriana Goitia eta Jacinta Ayastui omendu dituzte Jubilatuen Egunean

Iaz bezala aurten ere bi emakume omendu dituzte ekainaren 21ean ospatu zen Jubilatuen Egunean. Bitoriana Goitia eta Jacinta Ayastui izan dira Pake Lekuk antolatutako nagusien eguneko protagonista nagusiak. Beraiek jaso zuten zapi eta lore sorta bana Izaro Elorza alkatea eta Lierni Altube Ongizate batzordeko buruaren eskutik, beraien ilobek dantzatutako aurrekuaren ostea. Pake Lekuko lehendakari Rafael Anduagak ere oroigarri bana eman zien. Jarraian, 125 bat jubilatutako elkartu ziren parrokiako klaustroan egin zen bazkarian.

Anje Arlanzonek eta Asier Corchetek irabazi dute Euspot lehiaketa

Bigarren urtez jarraian irabazi dute Anje Arlanzon oñatiarrak eta Asier Corchete donostiarrak EUSPOT, Euskarazko Spot-en Lehiaketa. 'Zergatik sortu euskarazko edukiak sare sozialetan?' izan da aurtengo gaia, eta lehiaketa irabazi duen 'Klik bat baino gehiago' spotean -29 segundo irauten du- formula perfektuaren bila ari den zientzialari bat azaltzen da frogak egiten, baina benetako arrakasta nortasunean dagoela esaten dio ahots batek. Arlanzonek eta Corchetek 1.000 euroko saria jaso dute. Ikusi lan saritua euspot.eus webgunean.



Pili Irazabal gogoan, Hika Egunean. Ingo Xonau taldeak antolatutako V. Hika Egunari hasiera emateko, iaz zendu zen Pili Irazabal euskaltzalea gogoratu zuten. Saltsa askotako perexila izan zen Pili, langilea, eskuzabala, eta hori ageri-agerian geratu zen Foruen plazan eskaini zioten omenaldi xume bezain hunkigarrian. Ingo Xonau taldekoekin batera, Txantxiku ikastolako lankide ohiek, Oñatiko odol-emileen elkartekoek, eta Pake Lekuko euskara eta irakurle taldekoek ere parte hartu zuten ekitaldian, eta denek izan zituzten esker oneko hitz sentituak Pili zenarekiko. Haren senideek ere eskertu zuten omenaldia antolatu izana.



Guraso, garaian garaikoa!

Badator uda. Eskola amaitu, oporrak hasi, eta, horrekin batera, etxeko errutinak ere goitik behera aldatzen dira. Udako ekintzak, ordutegi berriak, lagunarteko planak eta ohitura aldaketak iristen dira. Uztailean, bereziki, aldaketa horiek nabarmenak izaten dira etxe askotan, guraso gehienek lanean jarraitzen baitute. Haur eta gazteek oporrak behar dituzte, noski, baina eskolak ematen zien eguneroko egitura ere desagertu egiten da: etxera beranduago iritsi, ohera gero eta beranduago joan, goizean gehiago lo egin...

Gainera, uda bakoitza ez da aurrekoaren berdina. Urtebete zaharragoak dira, eta, horrekin batera, nahi berriak, erronka berriak eta askatasun gehiago izateko gogoia ere agertzen dira. Uda luzea denez, ohikoa izaten da etxean negoziazioak ugaritzea: ordutegiak, mugikorraren erabilera, lagunekin irteteko baimenak, plan berriak, ...

Azken urteotan, gainera, gero eta nabarmenagoa da beste fenomeno bat: pre-adoleszentziatik aurrera, haur eta nerabe askok adinez handiagoak diren gazteen ohiturak eta jokabideak gero eta lehenago bereganatzen dituzte. Sare sozialen erabilera goiztiarra, harreman afektiboaren hasiera, irudi pertsonalarekiko kezka, herritik kanpo ibiltzeko gogoia edo etxeratze-ordua luzatzeko eskaerak gero eta lehenago agertzen dira. Eta uda da, askotan, jauzi horiek emateko unea.

Jakina da seme-alaben autonomia sustatu behar dugula. Hazten ari dira, eta pixkanaka askatasun handiagoa behar dute. Baina autonomia sustatzea ez da permisibitatea handitzea. Bi kontzeptuak ez dira gauza bera.

Gaur egungo berehalakotasunaren kulturak dena azkar bizitzera bultzatzen gaitu. Badirudi dena lehenago iritsi behar dela: mugikorra, sare sozialak, independentzia, harremanak, ... Batzuetan, guk geuk ere nahi izaten dugu gure seme-alabek autonomia lehenbailehen hartzea; agian, gure egunerokoa ere errazagoa izango delako. Baina garapen emozionalak eta neurologikoak ez dute presa hau ulertzen, garapenean adin bakoitzak bere erritmoa eta bere beharrak baititu.

Horregatik, adin jakin batean egokitzen ez zaizkien egoerei aurre egin behar dietenean, askotan ez dute behar besteko heldutasunik egoera horiek ondo ulertu, kudeatu edo erabaki egokiak hartzeko. Eta, aldi berean, gurasook distantzia handiegia hartzen badugu, gero eta zailagoa izango da jakitea zertan dabilzan, norekin dauden edo zer bizitzen ari diren. Arazoren bat sortzen denean, agian, beranduegi iritsiko gara.

Horren aurrean, galdera batzuk egitea komeni da. Ez erantzun bakarria aurkitzeko, baizik eta hausnartzeko.

- Zein da adin egokia Oñatin lagunekin bokata bat afaltzera joaten hasteko?
- Noiz da une egokia lagunartean Usakora bakarrik joateko?
- Zein adinetan izan beharko lukete lehen mugikor propioa edo sare sozialetarako sarbidea?

- Auzoko jaietan, zenbateko autonomia eman behar diegu etxeratze orduetarako dagokienez?
- Noiz has daitezke autobusa edo trena hartuta lagunekin hondartzara joaten?
- Noiz hasi behar dute bikotekidea etxera eramaten?

Galdera horiek ez dute erantzun unibertsalik. Familia bakoitzak bere errealitatea du, eta haur bakoitzak bere heldutasun-maila. Baina galdera horiek geure buruari egiteak laguntzen digu konturatzen ea ez ote garen, batzuetan, etapa batzuk azkarreki erretzen ari. Izan ere, askotan sentsazioa dugu mugikorrekiko pantailan egiten dugun scroll amaigabe horren antzera bizi ditugula haurtzarora eta nerabezarora: etapa bat guztiz bizi eta gozatu aurretik, hurrengora pasatzeko presarekin.

Gainera, gure seme-alabei ematen dizkiegun baimenek ez dute eragina soilik gure etxean. Taldean ere eragiten dute. Norbaitek ordutegi malguagoak edo askatasun handiagoa badu, gainerakoek ere hori nahi izango dute. Konparazioak, presioa eta **FOMO** delakoa (Fear of Missing Out, zerbait galtzeko beldurra) agertzen dira, eta horrekin batera frustrazioa, gatazkak eta gurasoen arteko desadostasunak ere bai.

Horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa da gurasoen komunitatea indartzea. Elkarrekin hitz egitea, esperientziak partekatzea, zalantzak mahai gainean jartzea eta, ahal den neurrian, irizpide batzuk partekatzea. Ez denok berdin hezteko, baizik eta seme-alabei mezu koherenteak emateko eta presio sozialaren aurrean elkarri eusteko.

Azken batean, haurtzarora eta nerabezarora ez dira helduarorako itxaron-gela huts bat. Bizitzako etapa baliotsuak dira, berezko erritmoa, ilusioak eta ikaskuntzak dituztenak. Ez ditzagun presaka bizi arazi, ez ditzagun etapa horiek helduen munduaren erritmoan neurtu.

Utz diezaiegun haurrei haurrak izaten eta gazteei gazte izaten. Utzi diezaiegun garaian garaikoa bizitzen.

Iñigo Ugarte Inza. Haur eta Gazteria Saila.

HAUR ETA GAZTERIA SAILEKO AGENDA

> KUBOA:

Uztailak 6: Lasturren talo tailerra + Deban surf-a; **Uztailak 8:** Gaztelugatxe + Bermeon itsasontzian buela, LH 3-4koentzat; **Uztailak 13-14:** LH6, Seignosseko aquapark-a + Hondarribian lo egin; **Uztailak 17:** Elorrioko igerilekura irteera.

> TOPALEKUA:

Uztailak 7: Labenneko ur parkera; **Uztailak 15:** Laidako hondartzera (kayak/paddle surf) eraixa.

Beraien aurreneko poesia liburua argitaratu dute Marta Igarzabalek, Sara Mantxolak eta Amaia Aranzetak

Marta Igarzabal Galdosek (Oñati, 2001) *Mi cuerpo es una casa, nuestra casa es mi cuerpo* (*Talón de aquiles*) poema liburua plazaratu du. Nerabezarotik gaur arte idatzitako olerkien antologia bat da. Poema intimistak dira, bere bizi-esperientziatik sorturikoak. Sara Mantxola Akizuk (Oñati, 2000) *Sentimenduaren metamorfosisa* (*Maiatz*) argitaratu du. Aurtengo Iparragirre Literatur Saria irabazitako olerki bilduma da, eta tristura poztasun bihur daitekeela iradokitzen duten poemak aurkituko ditugu bertan. Amaia Aranzeta Zubeldiak (Oñati, 1985) *Bihotzaren izkin batetik* (*Maiatz*) plazaratu du; existentziaz, gizartearen dekadentziaz edota errealtate jakin bat bizitzera kondentatuta dagoen gizakiaz gogoeta egiten duten olerkiak jaso ditu bertan. Hirurekin izan gara.



MARTA IGARZABAL GALDOS

Madrilen bizi da egun Marta. Bertan burutu zituen Historia ikasketak, eta orain doktoretza-tesi eta master artean murgilduta dabil buru belarri. Idaztera dedikatzea gustatuko litzaioke, alokairua ordaindu beharraz kezkatu barik. Oraingoaz, lehen harritxoak jarri du.

Zure lehen olerki liburua argitaratu duzu. Nolatan?

Txikitatik gura izan dut idazlea izan. Badakit oso zaila dela hortik bizimodua ateratzea, baina beti jarraitu izan dut idazten, ez soilik poesia, baita narratiba ere. Eta, hala, antologiatxo bat argitaratzeko adina olerki neukala ikusirik, proba egitea pentsatu nuen. Gaur egun ez da batere erraza argitaratzea, sariren bat irabazi ez baduzu, behintzat, baina argitaletxe pare batera bidali nituen olerkiak, itxaropen handiegirik gabe, egitari zor, eta poesiari lehentasuna ematen dion *Talón de Aquiles* editorialak aukera eman zidan eta oso pozik nago liburua-rekin. Nire bizitzako etapa bat ixteko modu bat ere izan da.

Mi cuerpo es una casa, nuestra casa es mi cuerpo du izenburua liburua. Zer aurkituko du irakurleak bertan?

Nerabezarotik orain dela gutxira arte idatzi izan ditudan olerkien aukeraketa

SARA MANTXOLA AKIZU

Itzulpengintza eta interpretazioa ikasi zuten Sarak, eta Bigarren Hezkuntzako euskara irakaslea da egun. Aurtengo Iparragirre Poesia Saria irabazi duen olerki bilduma liburuxka formatuan plazaratu du Baionako Maiatz argitaletxearen eskutik.

Zure lehen olerki liburua plazaratu duzu. Nolatan?

Batxilergoko garaian hasi nintzen nire lehen testutxoak idazten; nire bizipenak, nire hausnarketak... sentitzen nituen gauzak. Eta ikusten nuen poema horien bidez bazegoela mezu bat helaraztea, aurrena nire buruari, eta, agian, beste batzuentzat ere lagungarria izan zitekeela. Metafora baten bidez –larba baten metamorfosisa– adierazi nahi izan dut, larba bat tximeleta bihurtzen den moduan, tristura ere poztasun bilaka daitekeela. Itxaropen izpi bat, nolabait esatearren. Hortik izenburua: *Sentimenduaren metamorfosisa*. Bilduma osatuta, *Maiatz* argitaletxera bidali nuen eta, aurrena, bertako *Maiatz* aldizkarian argitaratu zuten. Gero, Luzien Etxezaharreta editoreak deitu zidan, liburuxka formatuan ateratzeko aukera eskainiz.

Formatu berezian argitaratu duzue.

AMAIA ARANZETA ZUBELDIA

Humanitateetan doktorea, Elkar Hezi ikastetxeko zuzendaria da egun. Sari bat baino gehiago jaso izan ditu poesia lehiaketa ezberdinetan (Urruzuno, Lauaxeta, Eibar Hiria, Nafarroako unibertsitatea...), baina hauxe du bere aurreneko poema liburua.

Lehen liburua plazaratzeko unea dela erabaki duzu. Zergatik?

Ikasle garaian hasi nintzen lehen olerkiak idazten, eta aspalditik neukan horrelako bildumatxo bat egiteko gogoia. Beraz, lehendik idatzita neuzkan poemak eta azken aldian idatzitako berriak gaika antolatu eta liburu baterako materiala baneukala ikusita, *Maiatz* argitaletxera jo nuen eta bertako Luzien Etxezaharretaren edizio lanarekin atera da liburua. Halako prozesu batek heldutasun puntu bat behar duela uste dut..

Bihotzaren izkin batetik du izenburua liburua. Zer aurkituko du irakurleak bertan?

Nire bizi-esperientzia eta sentimenduetan oinarritutako poemak eta, zehazki, gai zentral edo nagusi batzuen inguruan idatzitakoak, hala nola: existentzia –denbora eta espazio artean bizi dugun bizitza–; hiriaren eta gizartearen dekadentzia –kontsumo gizartea...–;



MARTA IGARZABAL GALDOS

» ARGITARATZE PROZESUA BERA OSO ABERASGARRIA IZAN DA. LEHEN KONTAKTUA IZAN DUT EDITORIALEKIN, ETA HORREKIN BAKARRIK OSO GUSTURA NAGO

bat da. Poema intimistak dira gehienbat, nire bizi-esperientzietatik sorturikoak. Pertsona nahiko sentibera edo xamurra naiz, eta nire barne sentimendu eta emozioen isla dira gehienbat. Esan liteke tonu triste edo melankoniatsua dela nagusi liburuan zehar, baina dena ez da tristura, badira lehen amodioekin loturiko edo momentu zailak gainditu osteko argitasun edo sentimendu goxoekin loturikoak ere.

Norentzat idazten du Martak?

Pertsona konkretu bati idatzitakoa ez bada, normalean beretako idazten du Martak. Esango nuke ia terapeutikoa izan daitekeen ariketa bat dela; barruan trabatuta geratzen zaizkigun emozio edo sentimendu horiei hitzak jartzea eta olerki eran ateratzea polita eta lagungarria izaten da.

Txikitatik idatzi izan duzula diozu. Zer ematen dizu idazteak?

Asko gustatu izan zait beti irakurtzea; beste mundu batean murgiltzea bezalakoa da. Gainera, askotan sentitu izan dut idazleek hitzak jartzen zizkietela nire sentimendu edo emozioei, eta oso bitxia iruditu izan zait beti elkar ezagutzen ez

(Hurrengo orrialdera)



SARA MANTXOLA AKIZU

» LARBAREN METAMORFOSIAREN METAFORA BALIATU DUT, TRISTURA SENTIMENDUA POZTASUN BIHUR DAITEKEELA ADIERAZTEKO

Gustura emaitzarekin?

Bai, proiektu xume bat zen, azken batean, ez zegoen ohiko liburu baterako adina material, eta Luzienek berak proposatu zidan formatu txikian argitaratzea. Gainera, nire lehengusu Joana Manzidorrek egindako ilustrazio batzuk ere tartekatu ditugu eta horrek ere ilusio handia egin dit. Pozik nago emaitzarekin, bai; fina da eta oso txukun geratu da.

Zer aurkituko du irakurleak bertan?

Kontrazalean datorren esaldiak laburbiltzen du ondo mamia: 'Larbak tximeleta bilakatzen diren legez, tristura poztasun bihur daiteke'. Liburuan hiru atal bereizten dira: *Zauriak*, *Orbainak* eta *Metamorfosia*. Aurreneko zatiko poemetan tristura islatzen da; bigarrenean, zauriak nola itxi edo orbaindu ahal diren; eta hirugarren ataleko poemetan metamorfosia irudikatzen da, tximeleta bihurtzea eta sentimenduen loratzea. Sentimenduaren garapen edo metamorfosia irudikatzen da liburuan zehar.

Nerabezaroan hasi zinen idazten. Zer ematen dizu idazteak?

(Hurrengo orrialdera)



AMAIA ARANZETA ZUBELDIA

» IRAKURLEEK LIBURUAREKIN GOZATZEA NAHIKO NUKE, ETA INORI ZER PENTSATUA EMATEN BADIO, ONDO, HAUSNARKETA ERAGIN NAHI DUEN LIBURUA BAITA

errealitate batean bizitzera kondenatuta dagoen gizakia –badu aske izateko gogo eta beharra, baina gizarteak bere mugak ezartzen dizkio–.

Zenbait olerkitan 'Zu' bati hitz egiten diozu. Nor da?.

Izenik ez duen *Zu* bat da; ez da pertsona zehatz bat. Azken batean, barne elkarriketak dira, gure barnean dagoen horrekin –'zu ontologikoa' esaten diot nik– partekatzen ditudan gogoetak dira, erantzun bila egindako galderak...

Ilustrazioak eta argazkiak ere tartekatu dituzu liburuan.

Bai, nireak dira guztiak. Marraztea ere gustatzen zait, denbora daukadanean, eta argazkiak sartzearena Luzienek berak proposatu zidan eta egokia iruditu zitzaidan. Poema ezberdinekin lotura duten ilustrazioak eta argazkiak dira eta nire gogoetak edo beste sortzaile batzuen aipu edo zitak eransteke bidea eman didate.

Txikitatik izan omen duzu idazteko joera. Zer ematen dizu idazteak?

Beti gustatu izan zait idaztea, batez ere poesia. Txikitan, 11-12 urterekin hasi

(Hurrengo orrialdera)

duten idazle eta irakurle baten artean halako konexioa sortzea. Eta, beharbada, ni neu ere horixe egiten saiatzen naiz, alegia, barruan daukadana atera eta ea norbaitengana iristen den edo inor identifikatuta sentitzen den. Oso polita da norbaitek esatea konektatu egin duela zuk hitzen bitartez adierazitako sentimendu edo emozioekin.

Eta zergatik poesia?

Oraingoan poesia izan da, baina narraitiba ere idazten dut. Kontua da, testu narratiboek denbora gehiago eskatzen didatela; dena ondo egituratuta eta ondo josita egotea nahi izaten dut. Poemak, aldiz, momentuan sentitzen dudanaren arabera idatzi ohi ditut, eta ez ditut gehiago ukitzen. Horregatik, olerkien karpeta lehenago betetzen zait eta horixe izan da poema liburuarekin estreinatzearen arrazoia.

Zer espero duzu aurreneko liburu honetatik?

Argitaratzeko prozesua bera, jada, oso aberasgarria izan da. Lehenengo kontaktua izan dut mundu editorialarekin, eta, egiari zor, uste baino hobeto joan da. Liburu bat plazaratzeko gai naizela demostratu diot nire buruari, eta horrekin bakarrik gustura nago, eta liburu es-kutan edo liburutegiko apaletan ikusita, zer esanik ez. Gainera, ingurukoek eta maite dudak jendeak ere parte hartu du liburuan –azaleko marrazkia nire ahizpa Leirek egin du, nire lagun mina den Leire izan da lehen irakurlea argitaratze prozesuan...– eta horrek asko betetzen nau. Beraz, ez dut beste askorik espero; irakurriko dutenek disfrutatu dezatela.

Ba al duzu beste proiekturik?

Lehiaketa batera aurkeztu dudana poema sorta bat amaitu berri dut, eta, bestalde, mahai gainean ditut ipuin bilduma bat eta baita bi nobela proiektu ere, baina, azkenaldian, tesia dela, masterra dela, denbora barik nabil. ■

Asko gustatu izan zait beti irakurtzea, eta uste dut horrek ere bultzatu nauela idaztera, ideiak hartzen zoazelako. Horrez gain, esango nuke idaztea lasaitzeko modu bat dela niretako; gustura egiten dudana ariketa edo jolas moduko bat da, eta lasaitu egiten nau.

Eta zergatik poesia?

Idazten ditudan testuek askotan zerikusi handia izaten dute sentimenduekin, eta iruditzen zait poesia dela horretarako genero aproposena. Poesian erabiltzen diren hizkuntza eta baliabide estilistikoak ez dira narratibakoak bezalakoak, eta horiekin jolastea gustatzen zait. Hala ere, oraindik ikasteko asko daukadala sentitzen dut; liburu hau argitaratu dut eta oso pozik nago, baina ez daukat nire burua poetatzat. Ikasten jarraitu nahi dut. Beharbada, erosoago sentitzen naiz narratiban, batez ere narrazio laburretan. Mikroipuinak idaztea, adibidez, asko gustatzen zait; ariketa polita iruditzen zait, hitz kopuru mugatu batekin istorio bat sortzea.

Norentzat idazten du Sarak?

Bere buruarentzat. Hasiara batean, behintzat, niretako, eta gero pentsatzen hasten naiz ea baliagarria izan daitekeen beste norbaitentzat.

Zer espero duzu aurreneko liburu honetatik?

Liburu irakurtzen duen jendeari gustatzea –ez gustatzea ere zilegi da, noski–, eta norbaiti baliagarria gertatzen bazaio eta disfrutatzen badu, niretako nahikoa da hori. Azken batean proiektu xume bat izan da eta ez dut beste ezer espero.

Ba al duzu beste proiekturik?

Idazten jarraitzeko asmoa dut, gustuko dudalako, baina ez dut nire burua presionatu nahi liburu hau argitaratu dudalako. Agian sortuko da zeozer, baina oraingoz ez daukat proiekturik buruan. ■

nintzen hitzekin jolasean, lehen errimak sortzen... Gozatu egiten dut sortzen, ez bakarrik idatziz, baita musikaren bidez ere –pianoa jotzen dut eta gitarrarekin nahiz biolinarekin ere ari naiz–, eta kanta batzuk sortzen ere hasita nago, nire poemetako testuak oinarri hartuta, batzuetan. Erlaxatu egiten nau eta, gainera, bada modu bat ikusten, sentitzen edo espermentatzen dugun hori adierazteko.

Norentzat idazten duzu?

Irakurtzea gustuko duen edozeinentzat. Badago jendea poesia ulertzea zaila gertatzen zaiona, ohitura faltagatik, batez ere, eta animatu egin nahi nuke jende hori ere poesiarantz gerturatzera. Egia da beti ez dela erraza izaten idazleak esan nahi duena ulertzea, baina bakoitzak bere erara interpretatu ahal izatea ere polita da.

Zer espero duzu liburu honetatik?

Irakurtzen duenari gustatzea edo, guxtienez, irakurraldia gozatzea. Hortik aurrera, norbaiti zer pentsatua ematen badio, ederto, azken batean bai delako hausnarketa eragin nahi duen liburu bat.

Non eskura daiteke liburua?

Oñatiko liburu dendetan edo, bestela, www.karrikiri.eus online dendan.

Beste proiekturik ba al duzu esku artean?

Liburu honen jarraipena-edo izango litzatekeen poema bilduma berri bat prestatzen hasita nago. Badirudi lehen liburu argitaratuta ikusteak piztu-edo egin nauela eta, egia esan, etorriarekin nabil azkan aldiari. Bestalde, narratibarekin proba egitea ere nahiko nuke; ipuinen bat, eleberriren bat... Genero hauetan ez daukat hainbesteko eskarmenturik, eta niretako erronka bat izango da, baina gustura hartuko dudala uste dut. Ikusi egin behar ea ezer ateratzen den. ■



**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**
Ultzezin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



'Neure burua izan denean neure buruaren etsai'

Doinua: Ay Antton, Ay Antton (estribilorik gabe)

1.- Bakardadeak bultzatuta gaur bertsoak nahi ditut para nahizta ezingo nuken beharko nuken ezer errepara!
Dudan bizitza ta nahi nukena ez nituzke nahi konpara, hots, horregatik batenbatentzat onura izango bada esplikatuko dut nola jausi nintzen zulo batetara ta nola hortik ateratzeko gogorik ez dudan jada!

2.- Nerabezaro garaiko lehen zigarroak ta zerbezak, zentzu haundirik izan ez zuten asteburu aldrebesak, artean ume izanda heldu izateko interesak...
Modu horretan okertzen ziren hartzen nituen lainezak!
Haundikeritan hasteak zabal ditzake bide errezak baina bi hankak mozten dizkizu bururik eduki ezak!

3.- Hemeretzi bat urte neuzkala izan zen lehen anfeta!
Ta ordurako ohitura nuen afal ostero bi peta.
Ustez hori bait nuen gustura bizitzeko errezeta nahizta eltze ta zartagin denek amaitu duten erreta!
Urte askotan elikatu dut drogen kontsumo erreka non gaur erreka sutan dagoen polbora hutsa da eta!

4.- Haseran ezer ez nuen hartzen ez banuen hartzerik nahi ta gero berriz ez nintzen zer nahi nuen kontrolatzeko gai ta alperrik zen egotea nik jarrera aldatuko zai, neure burua izan delako neure buruaren etsai.
Drogak erabat arriskutsuak izango dira baina ay, neure buruak drogek baino min gehiago egiten darrai!

5.- Zorionaren bila nenbilen zorionaren parkean samina baino ez dut aurkitu zorionaren partean.
Dakidalako orain lekurik ez dudala gizartean ondorioztatu dut hausnartzeko hartutako hutsartean hil ezean ez naizela egongo drogetatik apartean gorputzak edo buruak beste ezer ez dion artean.

6.- Ezin hartuko ditut laguntzat nere inguruko denak, ez dira asko harremanetan izan ditudan lorpenak.
Lagun "onenak" "txarrenak" dira, "txarrenak" berriz "onenak", ez du inportik bi hitz hoiekin erabiltzen den ordenak zeren ni gisan drogetara hain itsatsita dagoenak berak bakarrik sortu ohi ditu lagun denentzat problemak.

7.- Ni laguntzeko denei irtetzen zaie psikologo harra hemen jendea argia da ta ni antza tonto samarra!
Nik egin behar nuken horretan jartzen dute azpimarra jarrai ez nezan ematen eman nezaken itxura txarra, baina latza da nere bizitzaz hizketan jardun beharra isiltasuna denean entzun nahi dudan gauza bakarra!

8.- Inor ez bedi egon aldatu naiteken itzaropenez bizimodua aldatzeko ez dut behar beste interes.
Aurrerantzean ere segiko dut orain arteko legez koka pixka bat esnifatuaz edo marihuana errez.
Bizi dudana laburbiltzea egiten zait oso errez drogekin kaka bat sentitzen naiz ta gabe hori ere ez!

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoï ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Herriko txoko guztietara iritsi nahi?

Jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus

Gipuzkoako federazioak Aloña Mendiko eskubaloi saila omendu du

Iñaki Canterok federazioaren zilarrezko domina jaso du, 40 urtetik gora klub ezberdinetan eta federazioan egindako lan bikaina eskertzeko

Aurten 50 urte betetzen dituen Aloña Mendiko eskubaloi sailari omenez, Oñatiko Santa Ana aretoan ospatu zuen denboraldi amaierako gala nagusia Gipuzkoako federazioak, eta ekitaldi hori baliatu zuen Aloña Mendiren mende erdiko ibilbide oparoari aitortza egiteko. Egun 15 talde eta 400dik gora jokalarik dituen kluba Gipuzkoa mailan erreferentea dela azpimarratu zuen Arantxa Arzak federazioko buruak. Kirol emaitzez haratago, talde-lana, komunitatean sustraitzea eta kirolariak errespetua edo esfortzua bezalako balioetan hezteko egiten duen ahalegina goraiatu zuen, 50 urte hauetan klubean aritu diren pertsona guztien lana eta konpromisoa eskertuz.

Ekitaldi berean federazioak zilarrezko domina eman zion Iñaki Canterori 40 urte luzez entrenatzaile modura egindako lana eskertuz. Bestalde, Unax Aranburuk 1. Lurralde mailako golegile onenaren saria jaso zuen, eta bigarren territorial mailako taldeak kiroltasunaren saria jaso zuen.

Lehen taldeko jokalaria izan zen Carlos Ugartek, eta egungo presidente Iñaki Mendarozketak jaso zuten oroigarria



Osasun arazoak tarteko, Iñaki Cantero ezin izan zen sari emate ekitaldian egon. Unax Aranburu Moiuak lehen territorial mailako golegile onenaren saria jaso du

» HURRENGO EKITALDIAK

50. URTEURRENEKO JAIA

Uztailaren 4an ospatuko du Aloña Mendiko eskubaloi sailak 50. urteurreneko jai egun nagusia, honako egitarau honekin: **12:30** Trikipoteoa Aloña Mendi tabernan hasita; **14:00** Argazki herrikoia Foruen plazan; **14:30** Bazkaria kiroldegian. Jolasak, omenaldiak eta bazkaloste musikatua Andoni Ollokiegirekin; **19:00** Rockalean, Zubikoa kiroldegian hasita.

JOKALARI OHIEN TXAPELKETA

Uztailaren 18an, goiz partean, garai ezberdinetan Aloña Mendin aritu izan diren jokalarik beterranoen arteko txapelketa jokatu da. Gizonezko nahiz emakumezkoen taldeak egongo dira.



Aloña Mendiko eskubaloi sailaren lehen taldea

ELITE MAILAKO BI PARTIDU

Abuztuaren goi mailako eskubaloiak gozatzeko beste bi aukera paregabe izango ditugu Zubikoa kiroldegian. **Abuztuaren 7an**, arratsaldeko 18:00etan, Asobal mailako

TORRELAVEGA eta **VALLADOLID** taldeen arteko partidua jokatu da. Sarrera, 5€.

Bestalde, **abuztuaren 26an**, asteazkena, emakumezkoen ohorezko mailako **BERA BERA** eta Replasa **BETI-ONAK** taldeek jokatu dute aurre-denboraldiko partidua (5€).

Bizitza oso bat eskubaloari emana

Iñaki Canterok 40 urtetik gora eman ditu entrenatzaile lanetan, besteak beste

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak zilarrezko domina eman dio Iñaki Canterori, 40 urte luzez egindako lan isila eta kirol honekiko erakutsitako konpromisoa eta maitasuna aitortuz eta eskertuz. Pozik jaso du errekonozimendua. "Bai, urte asko izan dira. Bizitza oso bat".

1978-79 denboraldian hasi zen Cantero eta eskubaloiaren arteko harremana. Aurrena jokalaria gisa, Aloña Mendiko jubenil mailako taldean. Hurrengo bi urteetan seniorrekin aritu zen, baina 81ean Granadara joan zen. soldadutza egitera, eta hango talde batean jokatu zuen. "Granadako txapelkun geratu ginen eta Andaluziako txapelketan hirugarren", gogoratzen du.

Oñatira bueltan, jokatzeari utzi eta entrenatzaile lanetan murgildu zen. Aurrena, Mii-lagrosa ikastetxeko infantil mailako nesken taldearekin –Aloña Jubeniletik gorako taldeak bakarrik zituen–, eta Gipuzkoa nahiz Euskadiko txapelketak irabazi zituzten 82-83 eta 83-84 denboraldietan, eta azken urte horretan Mediterraniar Jokoetan ere nagusitu ziren Nojan (Kantabria) bertako, Galiziako eta Asturiasko selekzioen aurka. Hurrengo urtean, 1985ean, Madrilen jokatu zen Espainiako txapelketara sailkatu ziren, Kadete mailan.

Hurrengo urteetan, 1987tik 1995era, Bergarako eskubaloi taldean aritu zen Cantero. "Urte hartan UNEDen eman nuen izena, eta astean bizpahiru egunetan Bergarara joaten nintzenez, hango direktibo batek proposatu zidan neskak entrenatzea. 10 neskarekin hasi nintzen eta, bukaerarako 100 bat ginen;



Iñaki Cantero
zilarrezko
dominarekin



Iñaki Cantero. makurtuta erdian, 19xxeko senior mailako taldean



1998an Espainiako txapelketan 3. sailkatu zen taldea

Jubenil eta Kadeteak Euskal Ligan, beste kadete bat lurralde mailan, infantilen lau talde...".

Urte horietan atera zituen entrenatzaile tituluak, Gipuzkoakoa aurrena, eta nazional mailakoa 1994-95ean.

1995ean Aloña Mendira it-

zuli zen eta ordutik gaur arte, eten txiki batzuekin, Kadete eta Jubenil mailako taldeak entrenatzen jardun du, beti nesken taldeekin –urte batean mutilen talde bat ere entrenatu zuen–, eta Aloña Mendiren eskubaloi eskolan ere jardun izan du.

Entrenatzaile serioa, zorrotza eta exigentea izan da beti Cantero, eta horrek, tartela, arazotxoren bat sortu izan dio. "Nik gauza txar bat daukat, eta bestea ona; txarra da beti egia esaten dudala, eta ona, beti egia esaten dudala, eta horrek, tarteka, ika-mikak sortzen ditu. Zaila da denekin asmatzea. Zorrotza izan naiz, bai, baina jokalariek askotan esan izan didate ikasi ere asko ikasten zutela".

ESPAINIAKO TXAPELKETAN HIRUGARREN

Kirol arrakastarik handiena 1998an lortu zuen, Aloña Mendiko kadete mailako taldearekin. Euskadiko txapelketa irabazi ostean, Mallorkan jokatu zen Espainiako azken fasean 3. sailkatu ziren. 2002an ere estatu mailako azken fasera iritsi ziren eta 7. sailkatu ziren Tenerifen.

Bere eskuetatik igaro zen, adibidez, gerora elite mailan, Bera Bera taldean, besteak beste, jokatu zuen Itxaso Egaña. "Beste jokalaria on asko ere izan ditut: Ana Hernández, Oihana Iriondo, Onintza Negueruela, Arantza Kortabarria, Eider Quintas, Jone Larrañaga... batzuk aipatzearren. Azken hauek Espainiako txapelketa irabazi zuten Euskadiko selekzioarekin".

Klub mailan ez ezik, Gipuzkoako federazioarentzako ere lan egin izan du Canterok. Hamabi bat urtez Infantil mailako selekzioko hautatzailea izan zen, eta Debagoieneko teknifikazio eskola ere zuzendu zuen hainbat urtez.

Esandakoa, bizitza oso bat eskubaloiari emanda, eta ondo merezitako saria, noski. Zorionak! ■



Ibarra eta Sixto irabazle Torreauson

Arrakastatsua gertatu da, aurten ere, Torreausoko Herri Lasterketa. Ia 300 korrikalarik osatu zuten ibilbidea, horietatik 98 emakumezkoak. *Zure irribarra nire indarra* ekimeneko 8 kidek ere parte hartu zuten gupil aukietan, eta Bizi Hadi taldeko kide batek ere bai handbiketan. Emaitzei dagokienez, Unai Ibarra (23:47) eta Isabel Sixto (30:08) izan ziren azkarrenak. Endika Donnay, Camilo Lopez, Alaitz Atxa, eta Eguzkiñe Azpiazuk osatu zuten podiuma. Lehena oñatiarrak, Beñat Madariaga (26:43) eta Alaitz Atxa (30:40).



XI. Kantoikrit

Uztailaren 11n, larunbata, jokatu da aurtengo pinoi finkodun bizikleten KANTOIKRIT lasterketa ikusgarria. Gaueko 22:00etan hasiko da, baina orduerdi lehenago itxiko da zirkuitoa, txirrindulariek berotu ahal izateko.

Aloña Mendiko igeriketa sailak bi ordezkari izango ditu Espainiako txapelketetan

Aloña Mendik bi ordezkari izango ditu uztailaren 16tik 19ra Kanaria Handian jokatu diren Espainiako Infantil mailako igeriketa txapelketan: Aimar Urzelai eta Julen Pedregal. Bizkar erako 50, 100 eta 200 metroko probetan parte hartuko dute biek ala biek. Mailari onena eman eta, ahal dela, finalen batean sartzea dute helburu.



IRTEERA PIRINIOETARA

Bisaurin eta Ibón de Estanés



Ohi bezala, Aloña Mendiren uztailako irteera Pirinioetara izango da, **uztailaren 18-19an**, larunbatean Oñatitik goizeko 6etan irtenda. Aurreneko egunean Garbaito-Bisaurin-Lizara ibilaldia egingo dute (15,8km./-1.375m), eta igandean Lizara-Ibón de Estanés-Candanchú (18km./+1.200m). Desnibel inportanteak daude bietan. Lizarako aterpetxean hartuko dute ostatu, afaria eta gosaria barne. Mendingian jatekoa norberaren kontura. Izara-zakua behar da gauerako (alokagai egongo da 3€-tan). Prezioa: 100€, konfirmazioa jaso ostean ordaintzeko. Izen-ematea (22 leku) **uztailaren 9tik 13ra** alonamendi.mendi@gmail.com.

Emaitza bikainak gure txirrindularientzat

Afizionatu mailan ari den Aimar Erostarbek (Smartlog Nest) Gipuzkoako txapelketa irabazi du elite mailan. Gainera, Mungia sari nagusian podiumeko 2. koskara igo zen, eta Tolosako Anza memorialean 5. sailkatu zen. Bestala, Aloña Mendi-ULMA taldeko txirrindulariei dagokienez, Aimar Irizar 3. sailkatu zen Olakuan jokatuako kadete mailako Euskadiko txapelketan, eta Enzo Elizburu ere podiumeko 3. koskara igo zen Zaldibarren. Gainera, karrera bietan Aloña Mendi-Ulma nagusitu zen taldeka.



Pilota eguna, denboraldia ixteko

Ekainaren 19an jokatu ziren Aloña Mendiren denboraldi amaierako finalak, emaitza hauekin: **LH3** mailan Aitor Mugarza 16-Jon Otxoa Aizpurua 6; **LH4** mailan Peio Altuna 16 - Danel Palacin 2; **LH5** mailan Hegoi Lopez 16 - Oier Aranburu 13; **Alebinak** (Pilota Eskola) Lucas Gorostiaga 16 - Mattin Sarriegi 8; **Alebin** federatuak Peru Ibarzabal 16 - Ekain Lizarralde 9; **Infantilak** Jon Guridi 16 - Aner Mugarza 2; **Kadeteak** Mikel Egurbide 18 - Manex Cristobal 1; **Jubenilak** Iker Rodriguez 18 - Markel Beitia 5; **Nagusiak** Mikel Ugarte 18 - Manex Madinagoitia 16



Hots Abesbatza Totanako Habanera eta Polifonia sariketan lehiatuko da

Uztailaren 18 eta 19an Murtxiako Totana hirian ospatuko den XXXV. Habanera eta Polifonia Lehiaketan parte hartuko du Aitor Biain Bidartek zuzentzen duen Hots Abesbatzak. Estatuko koru lehiaketa ospetsuenetako bat da hau, eta Oñatiko taldea bertan parte hartzeko hautatua izan da, Mexiko, Madril eta Valentiako abesbatza banarekin batera. Habaneren atalean **Verde Mar** eta **Añoranza de un Marino** abestuko dute –antolakuntzak ezarritako errepertorioa–, eta polifonia atalean **O Sapiencia** eta **Oihu hau**. Oñatiarrek lan handia egin dute lehiaketa honetara begira, musikaren kalitate artistikoa eta interpretazioaren sendotasuna helburu hartuta, eta ilusio handiarekin daude esperientzia berri honetan parte hartu eta gozatzeko, urrats garrantzitsua izango baita abesbatzaren ibilbidean, kalitatea, konpromisoa eta ilusioa erakutsiz.



'Erromantizismoaren ahotsak', Aequus Ensemble orkestra eta Arabako Koru Sinfonikoaren eskutik

Ganbara Faktoriaren orkestrak -Aequus Ensemble- eta Arabako Koru Sinfonikoak kontzertu berezia eskainiko dute uztailaren 4an (19:00) Gasteizko Jesús Guridi kontserbatorioan. Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean XIX. mendeko Alemaniako musikaren unibertso estetiko eta espiritualean murgiltzeko aukera eskainiko dute, erromantizismo alemaniarreko obra adierazgarrietako batzuk interpretatuz.

Hasteko, **Johannes Brahms** pieza maitatuenetako bat (**Zigeunerlieder op. 103**) joko dute. Ondoren, **Franz Schuberten Intende Voci Orationis Meae D. 963**, eta kontzertua borobiltzeko, **Felix Mendelssohnen Lauda Sion op. 73**, Corpus Christi ospakizunerako idatzitako obra ederra. Bakarlari lanetan ariko dira **Ainhoa Izagirre** (sopranoa), **Maria Izaga** (mezzosopranoa), **Aitor Garitano** (tenorea) eta **Hodei Yañez** (baritonoa).



**UZTAILAREN
4an IZANGO DA
KONTZERTUA,
GASTEIZKO
JESUS GURIDI
KONTSERBATORIOAN
19:00etan**

Ibilbide oparo bati agur

Miguel Angel Zabaletak eta Jesús Odriozola 'Otxua'k erretiroa hartu dute musika bandatik. Korpus egunkoa izan zen beraien azken kontzertua. Zabaletak 51 urte eman ditu bandan, eta Otxuak 23, bandarekiko izan duten konpromiso eta pasioaren erakusgarri.



Urko Egaña, bigarren saritua izan den Iñigo Legorbururekin batera

Urko Egaña saritua

Durangoko Udalak antolatzen duen Julene Azpeitia literatur lehiaketa irabazi du Urko Egaña oñatiarrak bertso idatzien atalean.

Coinbroker
EUSKADI
ASEGURU ARTEKARITZA

☎ 943 08 90 06
☎ 688 77 45 31
✉ oinati@coinbroker.eus
📍 Arantzazuko ama 9, behea

>> LITERATURA TXATALAK (XIV)

Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818). Bizitza eta obria (eta V)

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñua: Jabier Erostarbe

BESTE SUPERSTIZIÑO ZIRRINDARAK

Ikusi degigun superstiziñuaren gaixaz Manuel Umerezek eskributako zenbait pasarte, bere idazkeriaren eta pentsakeriaren erakusgarri moduan:

Belen Altunak azalpen hau emuten dosku puntu honen gaiñian: "Superstizio edo sorginkeriako" bekatua osatzen duten jardunen zerrendatxo bat eskaintzen digu Umerezek. Horien artean, San Juan gauaren zikloarekin erlazonatutako batzuk, eta begizkoaren kontrako erremedioak; orain ere sorginez gutxiago hitz egiteko erregutzen du, eta gehiago bekatuan dauden arimez:

"eta pecatu au da superstizinocua edo sorguinderiacua deritzona; oneitatic batzubec izentauco ditut; zergaitic sarritan guertatu oi dirian batere escrupulu bagaric: Onelacuac dira ollarra besartian daucala eta gaberdian batec iru vuelta Echiari bere inguru guztitic emutia; San Juan gau leneco gaberdian soroco cardubac eta bedarrac ebatia; santu glorioso onen egunaren goician eta ez beste demporatan auntsai eta beste ganaubai igueri eraguitia; beguiz eguitia ume edo ganauren bateri, eta sospecha dirian personiari escubac garbitu eraguin eta aren ura edan eraguitia ume edo ganau gaiñoari; icatzac umiai colcuan sartzeia; batec gaitz luceren bat eta izen bagacua daucanian, bere oia eta almuadia erregistraitia gaitzquinaren billa, eta an beguitandu eta figuraitan iaten gauzac apartau eta vidacurtzetan erretia; Laumaravidicua eta Zortzimaravidicua doblauric edo oquerturic botatia Animen Zepotilluetara edo San Antonioaren aurrian ifintia; orobat defuntuben gañian eta odei aserretaco demporetan Conjuruen eta Conjuradorien gañian zabaldu oi dira mila siniste guezurrezco; eta beste edozein gauzatan corritan daube Atso ipuiñ asco christandadian sufridu ezin leizquianac. Instante oro entzun oi da: "Urlia edo Berendia Sorguiña da; Aquelarren onelaco eta alaco gauza eguiten dau"; itzi deiogun baquian Aitz puntaco Gaizta zuloari, jaquinic eguiazco Gaizta zuloac diriala vizioz eta pecatuz beteric dagozen biotz eta anima madaricatubac." (Osaba: 164-165) (82)



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



Beste pasarte honetan be *Gaiztazulo –Oñati aldera begira daguen Buetraitzen eta Andraitzen arteko kobazulua– aittaketan dau, han ei dagozen diabruen kontuai kasu ez egitteko esanaz:

"eta nora guaza odei demporaco guizur sinisqueta oneicaz, bardin odei aserriac ecusi oi dirian alderen batetic aurquiquetan bada, iñorc ondarric ez dequion leze andiren bat, nire gazte demporan, Oñatin estudioetan nebillela, entzun oi neben leguez Gaiztazuluaren izena daucan leze bategatic? Entzuten neben, bada, leze onetan diabrubac vizi diriala, sartu eta urten ibilten diriala batez ere odei aserria daguean, urlia arzainegaz eta berendiagaz au guertatu zana eta bestia, eta beste onelaco millabat atso-ipuiñ ume artian ere dempora iragogarri esaten christaun batec lotsatu biar leuquiana."
(Errectore baten...: 98)

Hiztegixa: *izentau:* izendatu (nombrar); *beguitandu:* hala dela pentsatu, baina gero ez izan, hau da, susmo bat izatea; *Laumaravidicuac:* lau maraiko txanponak (moneda de cuatro maravedies); *Zortzimaravidicuac:* zortzi maraiko txanponak (moneda de ocho maravedies); *Animen Zepotilluetara:* hildakoen aldeko limosna-kutxetara (a los cepillos de animas o difuntos); *orobat:* asimismo, también; *Instante oro:* une edo memento guztietan; *Urlia edo Berendia:* fulano o mengano; *guizur sinisqueta:* sineste faltsua (falsas creencias); *bardin:* baldin; *iñorc ondarric ez dequion leze andiren bat:* inork hondorik edo amaierarik topatu ez diezaiokeen leize handiren bat; beraz, leize sakona dela adierazten du; *leze:* leize, kobazulo; *urlia arzainegaz eta berendiagaz:* holako eta halako artzainegaz (con tal o cual pastor, con fulano y zutano); *dempora iragogarri:* denbora-pasagarri (pasatiempo); *christaun batec lotsatu biar leuquiana:* pertsona batek lotsatu behar lukeena.

*Gaiztazulori aittamena egitten xauen testu osagarri hau topau eta herriko euskeran ifiñi dogu Imanol Biainen eta Martin Jauregiartzoren 'Oñatiko mitologia' lan argittaratu bagian:

"Gorgomendiren gaiñian dago Gaiztozulo. Hobeto esateko, Buetraitzen onduan. Hauxe da Gorgomendiko Señoriaren bizilekua. Buztana luze ebala etorten ei zan Anbototik Gorgomendira. Ha Gorgomendin eguenian, negua txarragua izaten zan. Gu gazte giñala, Oñatitik abadiak faten ziran zulo hori bedeinkaketara. Orduan kuttunak egiten ziran San Juan egunian bedeinkatutako bedarrakin. Errudia ta aapixua ziran etsaia botateko inddarra eukain bedarrak".

(Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna)

Oharra: Umerezek 'Gaiztazulo' dakar eta Grazianok, berriz, 'Gaiztozulo' darabillega ikusten dogu; beraz, bixak ebalten dira. Dana dala, Oñatin 'maldad' edo 'malicia' esateko 'gaiztakerixia' esaten dogu, euskera batuko 'gaiztakeria' moduan.

Iturririx: Belen Altunaren 'Euskaldun fededun' liburua, Jerardo Elortza eta Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.

AGENDA

TRIANAKO JAIXAK

UZTAILAK 10 - EBAIKOTZA

19:00 Astotrastoren jaitsiera eta Totai-Boliviarrak pintxoak. Ondoren, txorimalo eta erraldoien kalejira.

19:30 Presoen aldeko elkarretaratzea; **22:00** Kontzertuak (*Olloki, Mala Ruina* eta *Zilibito Records*). Ordu txikitan helduen marrazki lehiaketa.

(*) Ebaikotz eta zapatuan, goizaldera, **entzierrua** egongo da.

UZTAILAK 11 - ZAPATUA

12:00 Umiendako marrazki saiaua; **14:30** Auzo bazkaixa. Ondoren, kafe ilintixa; **16:30** XLVI. Mus txa-pelketa; **17:00** Ur-pistola gerra; **19:00** Txorimalo eta erraldoien kalejira. Totai-Boliviarrak pintxoak; **23:00** Mugi panderoa. Ostian, *DJ Katximorro*. Gau osuan zihar: photocalla eta bikotian jolasa.

UZTAILAK 12 - DOMEKIA

10:00 Goiz eresia; **11:00** Artisau azoka; **12:00** Mural margoketa erraldoia Gure Eskuren eskutik. Ondoren, luntxa txosna gunean; **18:00** Bertso saioa; **20:00** Luntxa txosna gunian; **21:00** Xolonpon omenezko trakia.

MADALENAKO JAIXAK

UZTAILAK 17 - EBAIKOTZA

16:00 Auzolana; **16:30** Itxaflero jaurtiketa; **17:00** Bizikleta trabesia; **22:30** Kontzertuak (*Trini Fox, Lee Kore* eta *Garratz*).

UZTAILAK 18 - ZAPATUA

12:00 Auzolana; **14:00** Auzo bazkaixa eta puzgarrixak; **17:00** MUS txapelketa; **22:30** Kontzertuak (*4D/49, Ken Zazpi* –bertsioak–, *Los Zopilotes Txirriaos* –bertsioak– eta *Baratzuri Beltzak* –erromeria–).

UZTAILAK 19 - DOMEKA

10:00 Auzolana; **12:30** Meza eta luntxa. Ondoren, jaiei amaiera emateko itxaflero jaurtiketa eta zozketa.



KALEAN EGITARAUA

Udaleko Kultura sailaren eskutik

UZTAILAK 8 / 19:00 - LAZARRAGA LORATEGIAN GARAZI ESNAOLA

Garazi Esnaola Balerdi (Lizartza, 1992) musikari eta piano-jolearen kontzertua. Musika sotila eta intimista egiten du. *Kantuki* taldean hasi zuen bere ibilbidea. Gerora, Izarorekin ere aritu zen, eta baita Iker Lauroba eta Oriol Flores bezalako musikariek ere.



UZTAILAK 15 / 19:00 - LAZARRAGA LORATEGIAN ARIA

Marina Landa kantautorea 2023an sortutako talde donostiarra da Aria. Pop doinuak dakartzatza, brit pop eta pop italiarraren pintzeladekin. Iñaki Ortegok (teklatura), Iñaki Olaskoagak (gitarra) eta Ion Larrañagak (bateria) osatzen dute taldea.



UZTAILAK 22 / 19:00 - SAN LORENTZON BESAIDE FOLK

2023an sorturiko hirukotea da. Euskal Herriko herri musikaren erritmo, doinu eta koplak zaharren inguruan elkartu dira Aritz Mugartegi bizkaitarra, Teresa Jareño gipukoarra eta Gorka Bravo arabarra. San Lorentzoko ermita aurrealdean izango da emanaldia.



UZTAILAK 29 / 19:00 - SAN MARTINEN GANSO&CIA KONPAINIA

Gorka Ganso eta Cecilia Paganinik gidatzen duten klowne ikuskizuna. Antzerkiaren bi maitalek 'Hamlet' antzeztuko dute. Ai ene! Williamsek burua altxatuko balu... Agian ez litzateke harro egongo, baina behintzat barre egingo luke.



ABUZTUAK 29 / 12:30 - ERREMENTARI PLAZAN 'PIRATEN ISTORIO BAT' (Erre Produzioak)

Jeff eta Charlie arrantzan egitera doaz kai muturrera. Itsasgora jaisten denean, hondarrean erdi lurperatutako kutxa bat dagoela ikusiko dute. Ireki, eta mapa bat eta bidaia-egunkari bat aurkituko dituzte, eta benetako piraten abenturak bizitzen hasiko dira.



SANTAMAÑAKO JAIXAK

UZTAILAK 24 - EBAIKOTZA

18:00 Jaixen hasierako traka, eta txorimalo eta erraldoien kalejira; **19:00** Pintxopotia; **22:00** Kontzertuak (*Maniaks, Irati 58* eta *Lepue Zapaldu*). Ostian Korrikaña. Ostian DJH

UZTAILAK 25 - ZAPATUA

11:00 Haurrendako jolasak; **16:00** MUS txapelketa; **18:00** Txorimaloak; **20:00** BeerPong; **22:00** Kontzertuak (*Nehor, DaniCH y su código Havana* eta *Xaribari*). Ostean, *DJ Elio*.

UZTAILAK 26 - DOMEKA

14:30 Auzo bazkaixa. Ostian, nagusiendako ur jolasak eta Bingoa; **19:00** Kontzertu akustikoa (*Olaia ta Amaiur*); **22:00** Zozketa, jaixen amaierako traka eta ordu alai.

ERAKUSKETA

UZTAILAREN 3ra ARTE AKUARELA ERAKUSKETA

Amaia Aranzabal Balzategi arrasate-arraren akuarela ikusgai daude. Tartean, Oñatiko iturriak eta eraikin monumentaletako detaileak. [Kultur etxeko erakusketa aretoan.](#)

MUSIKA

ABUZTUAK 20 / 19:00 NATXO DE FELIPE & PHILIPERENA LAUKOTEA



Donostiako Musika Hamabostaldiaren baitan antolatutako kontzertua. Oskorri taldeak inoiz grabatu eta interpretatu ez zituen abestiak eskainiko dituzte. Sarrerak (14€ edo 22€) Donostiako Hamabostaldiaren webgunean [Arantzazuko santutegian.](#)



Biblioporrak gida atera du udal liburutegiak

Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Legazpiko udal liburutegiekin elkarlanean, uda sasoiko Biblioporrak gida atera du Oñatiko udal liburutegiak. Hizkuntza eta gai aldetik kalitate aipagarria duten 44 irakurgai gomendatzen dira bertan, adinka sailkatuta (0-5, 5-8, +8, Gaztea eta Helduak), eta baita 6 film ere. Udal liburutegian eta Emakumion Etxian eskura daiteke gida, eta baita udalaren webgunean ere kontsulta daiteke.

FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16
Uztailak 6, 7, 15, 16, 17, 18, 19, 21, 23, 27 eta 29. Abuztuak 1, 2, 4, 6, 10, 12, 14, 15 eta 16.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22
Uztailak 8 eta 9. Abuztuak 17, 19, 21, 22, 23, 25, 27 eta 31

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58
Uztailak 10, 11 eta 12. Abuztuak 18, 20, 24, 26, 28, 29 eta 30.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28
Uztailak 3, 4, 5, 13, 14, 20, 22, 24, 25, 26, 28, 30 eta 31. Abuztuak 3, 7, 8, 9, 11 eta 13.

ODOL ATERALDIA

UZTAILAK 17 / 16:30-20:30
MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

FAMILIA etxebizitza bila Oñatin, alokatzeko. Deitu: 663 558 452.

EMAKUME arduratsua eta atsegina, hemengoa, haurrak zaintzeko edo adineko pertsonak paseatzera atera edo konpañia egiteko pret. Deitu: 695 738 795.

LANERAKO PREST Esperientzia-dun emakume arduratsua, adineko pertsonak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Deitu 602 013 318

ETXEA ALOKAGAI ONATIN

Etxebizitza alokairuan ematen da San Martin auzoan. Sukaldea, egongela, 2 logela, bainua eta trastelekua. Garaje itxia alokagai, aukeran. Deitu: 685 712 295.

MERKATU TXIKIA

kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

ZEREN ZAIN ZAUDE

AURREZTEN

HASTEKO?

500 Mb-eko ZUNTZA

+ 2 MUGIKOR-LINEA

34,90 €/HIL
BEZa barne

Zatoz LIZKER INFORMATIKA dendara, kontrata ezazu zuntza + mugikor linea bat eta aukeratu zuretzat opari hau



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



(BEZa barne). Eta aukeratu aire bidezko frijigailua. Uztailaren 1etik uztailaren 31ra, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatutako 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO